

**METODOLOGIA KOOPERATIBOAN
OINARRITUTAKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO
UNITATE DIDAKTIKOA. DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO 1. MAIALARA
ZUZENDUA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: LIZARRAGA BEGIRISTAIN, ANE

ZUZENDARIA: CAYERO ALKORTA, RUTH

2017-2018 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. GORPUTZ HEZKUNTZA KONTZEPTU GISARA	5
2.2. METODOLOGIA KONTZEPTU GISARA	7
2.3. IRAKATS ESTILOAK GHn	8
2.3.1. Irakats estiloen sailkapena: Mosston (1986)	9
2.3.2. Irakats estiloen sailkapena: Delgado Noguera (1991)	10
2.4. METODOLOGIA KOOPERATIBOA.....	12
2.4.1. Ikasgela eta talde kooperatiboak.....	13
2.4.2. Ikaskuntza kooperatiboaren metodo eta teknikak.	15
2.5. XXI. MENDEKO TRESNA METODOLOGIKOAK.....	17
2.5.1. Ikasgela alderantzikatua (Flipped classroom)	17
2.5.2. Gamifikazioa (Gamificación)	17
2.5.3 Pentsamenduaren diseinua (Design thinking).....	18
2.5.4. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza.....	18
2.5.5. Rol jokia	18
2.5.6. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.....	19
3. PROPOSAMENA	20
3.1. LANAREN HELBURUA	20
3.2. METODOLOGIA	20

3.2.1. Prozedura.....	20
3.2.2. Tresnak.....	21
3.3. LANAREN GARAPENA	22
3.3.1. Diagnosia	22
3.3.2. Etapako irizpide kurrikularrak	24
4. URTEKO PROGRAMAZIOAREN PLANIFIKAZIOA	26
4.1. ARLOKO HELBURUAK:.....	26
4.2. DBH 1.MAILAKO IKASLERIAAREN EZAUGARRIAK	27
4.3. BEDERATZI UNITATE DIDAKTIKOEN LABURPENA	27
5. LANAREN GARAPENA: 9.UNITATE DIDAKTIKOAREN GARAPENA	30
5.1. IKASKUNTZA HELBURUAK.....	30
5.2. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIO KURRIKULARRA	30
5.3. PROPOSAMENA.....	31
5.3.1. Taldekatzea	31
5.3.2.UD-aren kronograma.....	32
5.3.3. UD-a eta konpetentzia giltzak (lomce, 2013)	33
6.3.4.UD-aren Saioen deskribapena.....	36
6.3.5. Ebaluazioa	41
6.EMAITZEN ANALISIA	42
6.1. ESPEROTAKO EMAITZAK.....	42
6.2. PROPOSAMENAREN ARRAKASTA ZEIN HUTSEGITEA	43
6.2.1. Indarguneak eta aukerak.....	43

6.2.2. Mehatxuak eta ahulguneak	44
7. HAUSNARKETA.....	45
8. ERREFERENTZIAK	46
9. ERANSKINAK	49
ERANSKINA I: 24/2015 FORU DEKRETUA.....	49
ERANSKINA II: TALDEKATZEEN ARTXIBOA.....	52
ERANSKINA III: IDATZIZKO LANA EGITEKO ESKEMA	53
ERANSKINA IV: IDATZIZKO LANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA.....	54
ERANSKINA V: AURKEZPENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA	55
ERANSKINA VI: SAIOAREN EGIKARITZA EBALUATZEKO TXOSTENAK.....	56
ERANSKINA VII: OLINPIADEN SAILKAPENA.....	59

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. Irakats Estiloak.....	9
Taula 2. DBH 1.mailako GH Curriculumuma.....	25
Taula 3. Programazio Didaktikoa laburtua.....	28
Taula 4. Saioen deskribapena 0. Astea.....	36
Taula 5, Saioen deskribapena 1. Astea	37
Taula 6. Saioen deskribapena 2. Astea	38
Taula 7. Saioen deskribapena 3-7. Asteak.....	39
Taula 8. Saioen deskribapena 8. Astea	40
Taula 9. Ebaluazio orokorraren eskema	41

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ondoren aurkeztuko den lana, nire zalantzetatik eratorritako gai edo egoera bati, erantzuna ematen saiatzen da. Hau da, irakaslea izango naizen momentutik, benetan arduratzen nau nire jarduna aurrera eramatean erabiliko dudako moduak. Asko ikertu da metodologiaren inguruan, zein metodo eta irakats estilo dauden, zein tresna etab. baina behin Lehen Hezkuntzako Graduatua izanda modu batean galduta aurkitzen dut neure burua. Are gehiago Jarduera Fisikoa eta Kirol Graduak etorkizunean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) lan egiteak baimenduko nauelako. Honenbestez, nerabezaroan dauden ikasleekin tratuan aritzeak errespetua sortarazten dit.

Batetik, dituzten ezaugarri bereziengatik, finean bigarren hezkuntzako ikasleak nerabeak dira eta horrek aldaketa fisiko, fisiologiko zein psikologikoak dakartza eta aldaketa garaiak bizi dituzte. Bestetik egun Gorputz Hezkuntzak (GH) hezkuntza sisteman duen bigarren mailako ikasgaiaren papera betetzen duela. Ondorioz, GH ikasgai polit bat izan ohi da, baina erabiltzen diren eduki, helburuen zein metodologiaren arabera ikasleek jarrera bat edo bestea har dezakete. Hau da, seriotasun puntu batez har liteke ikasgaia edota kontrakoa "jolasteko" ikasgai gisan. Horregatik, irakats metodoek berebiziko garrantzia duten moduan, irakasleek tresna hau erabiltzearen egokitasunaz jabetu beharko dugu ikasleen ikaskuntzan lagunduz.

2. MARKO TEORIKOA

Sarrera gisara, atal honetan Gorputz Hezkuntzaz (GH) eta honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) duen paperaz hitz egingo da. Kontzeptu orokorrenetatik zehatzenetara egingen da azterketa eta horretarako hainbat autore zein adituren hitzetan metodologia ezberdinen azalpen xume bat deskribatuz. Ondorio gisa azalduko den programazio didaktiko baten osaketan honek izango duen garrantzia azpimarratuz.

2.1. GORPUTZ HEZKUNTZA KONTZEPTU GISARA

Hezkuntza, gizarte sistema honetan, azpi sistema baten moduan ikus liteke. Izan ere, gizarte baten garapenerako eta biziraupenerako, egoera jakin batzuk eman behar dira. Hala nola, belaunaldiz belaunaldi kulturaren erreproduzioa, sozializazioa, balore, ezagutza zein jokaeren transmisio bat ematea. Guzti hau aintzat hartuz, egungo hezkuntzaren parte bat ere bada GH eta hurrengo lerroetan honi emanen zaio garrantzia.

GH gorputzeko mugimenduaren hezkuntza bezala ulertzen da. Aitzinean, gimnasia moduan ezagutzen zen eta indarra, bizkortasuna, malgutasuna zein erresistentziaren hobekuntzarako praktikatzen zen. Grekoen kasuan, gerratan ez ezik, osasuna eta gorputzaren funtzionaltasuna egoki mantentzeko tresna gisara erabiltzen zuten. Pérez (1993) autoreak, Grekoek hezkuntzari eginiko ekarpena garrantzitsua izan zela azaltzen du. Modu honetan, Perezek, Grekoak gorputzaren lanketa eta honen garapena modu hezigarriago batean eta ez soilik lehiarako planteatu zuen lehenengo giza taldea izan zela dio.

Nabarmena da mendeetan gizartea aldatuz joan dela eta harekin batera, gorputzaren mugimendua garatzearen perspektiba ere, gaur egun arte. Hori dela eta Cotechak (2007) aipatu moduan XX. mendearen amaieraz geroztik gaur egun arte GH ikasgai moduan, ahaleginak egiten jarraitzen dira giza mugimendua ikerketa objektu izaten jarraitzeko.

Nafarroako 24/2015 Foru dekretuak DBHko kurrikulumean GHri erreferentzia egiten dionean, pertsonen mugimena garatzea duela helburu nagusi dio. Batez ere mugimenduari lotutako ezagutza prozedura, jarrera eta sentimenduen integrazio gisa ulertuta. Dekretu honek gaineratzen du, ikasgai honek **bost egoera motor**

ezberdinen inguruan egituratu daitekeela, haietako bakoitzak **barne-logikako** ezaugarri komunak eta besteekiko desberdinak dituela. Hala nola, **ingurune egonkorretan**, **aurkakotasun** egoeratan, **lankidetzan** egoeratan, **inguruneari egokitzeko** egoeratan eta **arte edo adierazpen** kutsuko egoeratan.

Bertan gorputzaren eta honen mugimenduaren parte hartzea funtsezkoa izanik, honen garapena mentalki zein fisikoki betetzea du helburu. Honekin batera, ikaslearen jokaera motorra (GH beste ikasgaietatik ezberdintzen duena) garatzen laguntzen du. Honakoa, giza portaera motorraren beharrezko ezaugarria izanik. Beraz, bertan ikaslearen nortasun osoa jokoan dagoela esan daiteke, Parlebasek lau arlo bereizten zituen jokaera motorrean, autore honetan oinarrituta, Lopez de Sosoaga (2014-2015) apunteetatik hartutako informazioa: **arlo motorra**, **arlo kognitiboa**, **harremanetako arloa** eta **emoziozko arloa**.

Arlo motorra: ekintza motorra, mugimenduaren egikaritzea, nagusi den arloa. Honako egoera, ikasle bat bakarrik ala kideekin aritzean nabarmendu daiteke eta honako portaera motorra ikus daitezke: korrika, birak, jauziak, ukitua... Aipatzekoa da ere, jolas guztietan ez dela honako arloa gailentzen. Hala nola, zorizko jokoetan (karta jokoak...) edota kognitiboki lantzen direnetan (xakea, dama-jokoa...).

Arlo kognitiboa: egiten den hori, nola egin pentsatzean, adimen motorra gailentzen da eta honakoak motrizitatea bideratzen duela esan daiteke. Hori dela eta, ikasleek jolas edota jokoak praktikatzean, jardunean daudenean esanahiak bilatzea, bat bateko aukeraketa, erabakiak hartzea edota aurre hartzea.

Harremanetako arloa: arlo soziomotor moduan ere ezagutua. Honako arloaren hautematea ezinbestekoa da ikasleak haien artean aritzen badira. Askotan, enpatiaz jokatzeko edota elkarlanean jokatzeko dakar baita aurkakotasunean ere. Orduan, edozein joko edota jolasetan aritzeak hiru harreman mota izatea ahalbidetzen du. Hala nola, lankidetzan, aurkaritzea edota lankidetzan-aurkaritzea. Hauen arteko loturak egiteaz gain espazioa aztertzen badugu, ekintza motorraren zortzi ereduak azaldu daitezke (Parlebas, 1981).

Emoziozko arloa: bertan ikasleek jolas zein jokoaren egikaritzean dihardutenean nahi eta nahi ez, sentitzen diren emozioak azaleratzen dituzte. Honako emozioak

azaltzen hasten direlarik: alaitasuna, poza, barre egitea, lotsa, beldurra, frustrazioa... Gorputz Hezkuntzako ikasgai oso nabariak izan ohi direnak sentipenak.


Honekin, GHren bitartez lantzen diren 4 arloak garrantzizkoak izan daitezke haurren garapenean. Erantsiz, GHk gainontzeko ikasgaietatik urruntzen den ikasgaia izateaz gain, edukiak modu ezberdinean lantzen dituen ikasgaia dela ere ikusi daiteke. Haratago doan ikasgai baten moduan sailka dezakegu, Fernándezek (2009) aipatzen duenez, ikasgai honen laguntzaz, haurrak buruan duena atera egiten du eta agerian uzten du bere sormena. Ikasleak, askatasun hori izanik norberagandik eta ingurukoaz ikasiko du eta garrantzitsuago dena, errespetatzen ere jakingo du. Agerian da, hezkuntza instituzioek GHri ematen dioten garrantzi gutxia, ez dira jabetzen arlo honek ekintza motorraz lantzen dituen balio hezigarriez. Hala nola, gizabanakoaren integrazioa, bai taldean, gizartean eta norbanakoan.

2.2. METODOLOGIA KONTZEPTU GISARA

Hezkuntzan, metodologiaren erabilpena oso errotutako kontzeptua da, izan ere, helburu zehatz batera heltzeko burutu beharreko prozesuan, erabiltzen diren urrats eta jardueren multzoa dela esan daiteke. Hau da, helburu bat lortzeko erabiltzen diren prozeduren moduari edo metodoari esaten zaio. metodo jakin baten erabilera bultzatzen duen zientzia dela esan daiteke ere. **Metodologia** grekotik datorren (*méthodos*) esanahitik dator "metodoa" eta -logia atzikia (*loghos*) hitzetik eratorritakoak "zientzia", "ikerketa" edota "tratatu" moduan itzultzen da. Horregatik zientziaren edota ikerketaren metodo moduan ezaguna da.

Edukien transmisioa ez da irakasle batek ikasleei irakurritako edota emandako azalpenean amaitzen. Honek, lotura handia du irakasleak irakatsiko duen moduan. Ondorioz, irakaskuntzan metodologia ezberdinak aurki daitezke. Hau da, irakats metodo edota estilo ezberdinak. Hauek irakaskuntza ikaskuntza prozesua zein modutan gauzatzen den azalduko dute. Ikasleek edukiak barneratzeko irakasleek erabilitako prozeduren moduari edo bideari dagozkionak alegia. Horrela adierazten du Navarrete (2010) autoreak, Delgado Noguearak "método" kontzeptuaz honakoa adierazten duenean: "*Los métodos de enseñanza o didácticos son caminos que nos llevan a conseguir, alcanzar el aprendizaje en los alumnos, es decir, alcanzar los objetivos de enseñanza.*"

Irudia 1. Irakats-ikaskuntza prozesua



Iturria: Elaborazio propioa (2018)

Aurreko irudiari erreferentzia eginez, irakasle eta ikasleen artean gauzatzen dena prozesu bat da eta horri, irakats-ikaskuntza prozesua deritzo. Honakoa aurrera eramanez ahal izateko, garrantzia handia dauka metodologiak. Izan ere, askotariko metodologiak daude, Navarretek (2010) berresten duen moduan, irakatsi nahi denaren helburu, ikasle kopuru zein ezaugarri eta irakats edukien arabera, metodologia bat edo beste aukeratzen da. Gainera, aurretik aipatutako GHk dituen ezaugarriak (arloan motorra, kognitiboa, harremanetakoa eta emoziozkoa) arestian esan ditugunak (helburua, ikasle kopuru zein ezaugarriak..) gehitzen badizkiogu, beste ikasgaiak ez dute ikasgai honek duen konplexutasunik. Mosston (1986) autoreak, irakaskuntzan emaitza onak lortzeko zeri egin behar zaion erreferentzia azaltzen du. "Irakaskuntza egokia eman dadin, nahi denaren eta saioan bertan gertatzen denaren arteko lotura egon behar da". Honako loturak lortzeko, irakasleak irakats prozesua alda dezaketen faktoreak (helburuak, ikasleen antolaketa, materialaren antolaketa, zereginari eskainitako denbora, diziplina, kontrola, feedback,...) ezagutu eta maneiatzen jakin behar du.

2.3. IRAKATS ESTILOAK GHn

Metodologia GH ikasgaietan garrantzizko faktore bat da eta honen praktikan, metodo sailkapen ezberdinak daude. Autore asko dira irakats metodoez hitz egiten dutenak eta gauza berari izen ezberdinez deitzen diotenak. Hala nola, Tinningen (1992) liburuan "metodo zuzenaz" edota "aginte zuzenaz" hitz egiterakoan, hainbat autoreek modu ezberdin batean deitu izan diotela ikusten da. Biborough & Jonesek (1966) "metodo directo" aipatzean metodo zuzenaz dihardute; Mosstonek (1986) aldiz "estilo mando y orden" dihardu aginte zuzenaz; Hoffmanek (1971) "metodo tradicional" metodo tradizionalaz eta azkenik Willek (1978) "metodo de enseñanza directivo" irakats metodo zuzenaz hitz egiten du. Beraz, honekin ikusi daiteke gauza

berberaz aritzeko izen ezberdinak ezarri dituztela. Honek, metodoen sailkapen zehatz bat egitea zaildu egiten duelarik.

Arestian aipaturiko autoreak aintzat harturik, irakats estiloetan **hiru sailkapen** ikusi daitezke. **Lehenik**, metodo tradizionalen atala, bertan irakasleak du “aginte osoa” eta ikaslearen ekarpena soilik jardueren egikaritzara mugatzen da. **Bigarrenik**, irakats metodo “parte hartzailea”, bertan ikasleak parte hartze aktiboagoa dauka eta irakasleak oraindik zuzentzen badu ere, bere inplikazioak ez du aurrekoan bezain besteko ikusgarritasunik. **Azkenik**, “metodo kognoszitiboa” dago, honetan ikasleak autonomoki pentsatzeko askatasuna dauka eta irakasleak eman diezaiokeen tresnei aterabidea ematen dio bere sormenaz.

2.3.1. Irakats estiloen sailkapena: Mosston (1986)

Gorputz Hezkuntzan izen handia duen beste autore batek, alegia Muska Mosstonek, sailkapen osatua egin zuen. Beraz, Mosstonek (1986-1993) argitaratutako liburuan agertzen diren irakats estiloen zerrendatzeari (ikus. taula 1) ekingo zaio.

Taula 1: *Irakats Estiloak*

	Metodo enñanza	Irakats metodoa	Ezaugarriak
1	Mando directo.	Aginte zuzena	1. Jakintzen eta trebetasunen erreprodukzioa .
2	Enñanza basada en la tarea.	Eginkizunen esleipena.	2. Edukia zehatza da eta datu edota arau zehatzez baldintzatzen da.
3	Enñanza reciproca	Elkarrekiko ikaskuntza	3. Modu zuzen bakarra ariketa ondo egiteko (irakasleak aurkeztutakoa)
4	Estilo de autoevaluación ☀	Auto-ebaluazioan oinarritutakoa.	4. Ereduaren atxikitzea praktikatzeko denbora .
5	Estilo de inclusión ☀	Inklusioan oinarritutakoa.	5. Bakarkako diferentziak muga fisiko eta emozioetan onartzen dira soilik.
1	Descubrimiento guiado	Aurkikuntza bidezkoa.	6. Feedback-a espezifiko, ariketaren egikaritzan eta eredura hurbiltzean oinarritzen da.
1	Descubrimiento guiado	Aurkikuntza bidezkoa.	1. Jakintza eta trebetasun berrien egikaritzea .
2	Resolución de problemas.	Gatazken konponbidea.	2. Edukia aldatkorra , kontzeptu, estrategia eta printzipioz osatuta dago.
3	Programa individualizado.	Bakarkako programa.	3. Alternatibak exijitzen dira diseinu eta egikaritzan. Ez dago eredu bakarrik .
4	Alumnos iniciados ☀	Ikasle ekintzaileentzako estiloa.	4. Prozesu kognitiboarentzat denbora.
5	Auto enñanza ☀	Auto-ikaskuntza estiloa	5. Aurkikuntza eta sormena operazio kognitiboetan aldarrikatzen dira.
			6. Lan kognitiboak: konparazioa, kontrastea, sailkapena, gatazken ebazpena...

Mosston, M. eta Ashworth, S. (1993)

Mosstonen honako azalpenean bi sailkapen egiten ditu eta **Lehenengo** multzoan (grisez), **ikasleak** nahiko **pasiboki** lan egiten dute. **Bigarrenean** aldiz, ikasleen rola aldatuz doa eta modu **aktiboago** batean ematen da. Hala ere, badira lau bat estilo, Muska Mosstonek, ez beste inork, ezaugarritzen dituenak. Taulan lau horiek "☀️" batez atzematen direnak.

2.3.2. Irakats estiloen sailkapena: Delgado Noguera (1991)

Aurretik esan moduan sailkapen ugari daude irakats estiloen inguruan irakats-ikas prozesuan tresna moduan jokatzen dutenak. Delgado-Noguera (1991) autoreak azterketa sakon bat egiten du eta irakats estiloak **6 multzo handitan** sailkatzen ditu:

a. Irakats estilo tradizionalak

Multzo honetan kontutan izan daitezke **aginte zuzena, aginte zuzena moldatua** eta **eginkizunen esleipena**. Guztietan erabiltzen da irakaslearen "agindu zuzena". Irakasleak indibidualizazioari bide eman gabe agintzen du, denek jarduera berdin egin dezaten.

Gorputz hezkuntzan Aginte zuzenaren adierazpen garrantzitsuetako bat **progresioen erabilera** izan da. Hauen erabilerak jarduera konplexuak **analitikoki deskonposatzeak** jarduera bera errazagoa bilakatzen baitu. Ondorioz, ikasleak jakintzak gutxika eskuratzen ditu amaieran jarduera guztia osatuz.

Honako estiloak, irakasleak esperientzia handirik ez duenean erabiltzen dira; jarduera arriskutsuagoak egiten direnean (indar entrenamenduetan edota natur inguruetan egiten diren jarduerak); baita GH ohikoak diren jarduerak (dantzak, aerobic saioak ...)

b. Indibidualtasuna bultzatzen duten irakats estiloak

Multzo honetan estilo hauek gehitzen dira: **taldekako lana** (mailaren arabera edota interesen arabera) banakako lanen gehitzea, **irakaskuntza modularra**, Mosstonen (1978) **banakako programa** eta **irakaskuntza programatua**. Irakaskuntza era hauek gehien bat ikasleengan oinarritzen dira, hauen gaitasunak eta interesak batik bat. Irakasleak jardueren egikaritzea maila ezberdinetan eman dadin baimentzen du edota jarduera ezberdinen hautaketa onesten du. Irakaskuntza berezia da eta

emaitzen ezaguera funtsean banakakoa izan ohi da. Honenbestez, ikasleak jardueren egikaritzan eman beharreko pauso eta erritmoen askatasuna du eta berak erabakitzen ditu hauek.

Ohiko izan ohi da banakako proiektu zein taldekakoak zeinak amaierako ikaskuntzak aldatu daitezkeen ikasle batzuetatik besteetara (ez ordea, oinarrizkoak diren ikaskuntzatan). Hauek ere erabiliak izaten dira gaitasun fisikoan oinarritutako jardueratan, banakako lanak egiteko ideiarekin, posible den neurrian, ikasleek egiten dituzten jardueratan baita hauei ezarritako intentsitatean.

c. Ikaslearen parte hartzea ahalbidetzen duten irakats estiloak

Multzo honetan kontuan hartu daitezke **elkarrekiko irakaskuntza, taldekatze txikiak, mikro-irakaskuntza, autoikaskuntza, berdinen arteko irakaskuntza** eta **ikaskuntza kooperatiboa**. Estilo hauek ikasleen ikaskuntzan parte-hartze aktiboa dute ardatz. Irakaskuntza partekatu bat planteatzen da, zeinak ikasleek haien prozesuan esku hartzen duten.

Ikaskuntza estilo hauen oinarria, ikasleek hartu beharreko erabaki propioetan eragitean datza, haien autonomian mesede eginez. Honek, ikasleen arteko harreman sozialetan eragitea ohikoa izaten da. Izan ere, horren arrazoi nagusietako bat momentu ezberdinetan ikasleen artean egoten den interakzioa da.

d. Sozializazioa errazten duten irakats estiloak

Maila honetan honakoak hartzen dira kontutan; **rol bidezko jolasa, simulazio soziala, talde lana** (ez da norbanako bakoitzaren lana besteen lanei eranstea, partaideen arteko koordinazio eta adostasun bat egon behar da) eta **talde dinamikan oinarritutako teknikak**. Estilo hauek helburu sozialetan eta portaera, arau eta balioen edukietan oinarritzen dira. Hauetan banakako exekuzioa ez da garrantzitsua, baizik eta lan kooperatiboa GH-ko klaseetan.

Egun, estilo hauek GH-ko klaseetan aspektu interesgarrien ekarpenak eman ditzaketan arren, beste estilo batzuk **ikaskuntza kooperatiboak** edota **portaera estiloak** besteak beste, gailendu egin dira GH-n oinarritutako metodologian.

e. Ikaslearen ikaskuntzan kognoszitiboki zuzenago eragiten duten irakats estiloak

Sailkapen honetan, **aurkikuntza bidezko metodologia** edo **galderen bidezko irakaskuntza** eta Mosstonen (1978) gatazken konponbidea agertzen dira. Estilo hauek ikaslea modu aktibo, esanguratsu batean eraginkortasunez inplikatzeari dute helburu. Gaineratuz, ikerketa eta esperimentazio motorrerantz bultzatzea dutela hizpide. Jarduera egin behar dela adierazten da baina ez da inongo momentutan nola gauzatu behar den azaltzen. Ikasleak beregan feedbacka ezarri eta duen eskarmentuaz baliatzea eskatzen delarik.

GHko eremua aintzat hartuz, estilo hauek jarduerak konponbide eraginkor frogatu bat ez dutenean erabiltzen da. Hau da, jarduera erritmiko zein adierazpenekoetan eta gaitasun motoretan erabiliak izan ohi dira. Baita ere, aspektu taktiko zein estrategikoak erabiltzen diren jarduera orotan.

f. Sormena bultzatzen duten irakats estiloak

Sormena bilatzen da baita ikasleentzako pentsamendu dibergentea ere. Estilo egokiez dihardu, banakako edota taldekako ekimenetan ikasleak jarduerak bere gain hartzen dituztenean. Normalean gorputz adierazpenarekin lotutako jarduerekin lotzen da.

Guzti hau kontutan hartuz, Sicilia eta Delgado-Noguera (2002) autoreak **Estilo ekologikoaz** dihardute. Beraien proposamenak, irakats estilo hobereana hautatzea gaitzesten dute. Haratago doaz eta haien aintzat konbinazio joko bat egitea da egokiena. Hau da, testuingurua, edukiak eta helburuak aintzat hartuz, irakats-ikas prozesuan hobekien moldatzen diren irakats estiloen konbinazioan sinesten dute.

2.4. METODOLOGIA KOOPERATIBOA

Ikaskuntza kooperatiboak talde txikietan lan egitea du oinarri. Talde hauek hiru edota bost ikasle heterogeneoen artean sortzen dira. Ondorioz, taldeen helburuen lorpena taldekide guztien inplikazioaz baldintzatuta dago. Hau da, ikasteko kooperatu egin behar dute eta kooperatzen ikasi Pujolás (2002).

Díaz-Aguado (2003) autorearen ustetan, edozein lan talde ez da talde kooperatibo bat. Talde bat kooperatibo izan dadin gutxiengo ezaugarri batzuk bete behar ditu.

Lehenik eta behin, klasea talde (3-6 egoeraren arabera) egonkorretan banatu behar da unitateak irauten duen bitartean. Honela parte-hartzaileek onura eta gaitasun ezberdinak eduki behar dituzte. Bigarrenik, ikasle bakoitzak gainontzeko ikaskideek jarduera egin eta ikas dezaten lagundu behar dute. Azkenik, talde guztiaren errendimendua saritzen da. Honako ezaugarriak ikusiz, nabarmendu daiteke ikaskuntza kooperatiboa soilik ez dela talde lanean aritzea ikaskide bakoitzak lan independente bat eginez. Kontrakoa baizik, interdependentzia bat existitzen da ikaskideen artean zeina haien artean lagundu egin behar diren onura komun bat lortzeko.

Aurreko azalpenarekin ondorioztatu daiteke metodologia ezberdinak existitzen diren moduan irakaskuntza- ikaskuntza prozesuari ekiteko beste modu batzuk, bakoitza bere xede eta ezaugarriekin, badirela ere. Horrela, Pujolásek (2002) *ikaskuntzaren egituraketa* irakaskuntza-irakaskuntza prozesuan esku hartzen duten elementu multzo gisara definitzen du. Honako elementuek, irakaslearen azalpenak, ikasleek egiten dituzten jarduerak, gelako antolaketa zein ebaluazio moduari ere erreferentzia egiten diote. Horrenbestez, elementuek egituraketa bat edo bestea eratuko dute haien antolaketaren arabera. Hemendik, hiru egituraketa mota ateratzen dira: indibidualista, konpetitiboa eta **kooperatiboa**.

2.4.1. Ikasgela eta talde kooperatiboak


Klasean zein gimnasio batean lan kooperatibo bat aurrera eramaterako orduan, kontutan izan behar dira hainbat ezaugarri. Johnson, Jonhson eta Holubec, E. J. (1999) autoreen arabera 5 elementu daude lan bat kooperatiboa izan den edo ez jakiteko.

- a. **Interdependentzia positiboa.** Lanaren helburua taldekakoa izan behar da, ondorioz, taldekide guztiek arrakasta izan behar dute taldeak amaierako helburuak lor ditzan.
- b. **Taldeko zein banakako ardura.** Talde moduan, jomuga batzuk lortu behar dituzte, eta gainera taldekide bakoitzak erantzukizuna hartu behar du bere gain.
- c. **Aurrez aurreko estimulazio interakzioa.** Taldekideak haien artean estimulatzen dira errefortzuaren eta laguntzaren bidez. Loturak sortzen dituzte hauek euskarri pertsonal moduan balio dielarik elkarrekiko ikaskuntzan.

- d. **Pertsonen arteko eta taldeko teknikak.** Gaitasun komunikatibo zein sozialak jarri behar dituzte martxan erabakiak hartzeko, gatazken ebazpenerako, arduren kudeaketarako eta rol zehatzetarako.
- e. **Taldeko ebaluazioa:** Taldeko partaide bakoitzak bere gain hartu beharko du zein jarrera diren onartuak edo gaitzetsiak, taldearen funtzionamendurako zein erabakitako xedeak lortzerako momentuan. Honenbestez, haien aurrerapenak nola taldekoak ere ebaluatu beharko dituzte. Honela, lortu beharreko ikaskuntza eta helburuak behar bezala kudeatu daitezten.

Jarraian, irudia 2-an ikusi daiteke zein elementuk parte hartu behar duten ikaskuntza kooperatibo bat eman dadin eta nahas ez gaitezen taldekako lan kolaboratibo, ikaskuntza indibidualista edo konpetitiboarekin.

Irudia 2 Ikaskuntza kooperatiboaren elementuak.



Iturria: Ideia hartuta Johnson et al, (1999, 9-10 orr.)

Behin **Ikaskuntza kooperatiboa** zer den ikusita, taldekatze motak azalduko dira hurrenez hurren. Printzipioz ezaugarri garrantzitsuena taldekatzeak egiterako momentuan, heterogeneoak izatean datza. Pujolás (2003) autorearen arabera, hiru taldekatze mota ezberdin topa daitezke:

- a. **Oinarri taldeak.** Taldea beti heterogeneoa izango da, ahal izatekotan 4ko pertsonen osatutakoa eta kurtso edo ziklo batean zehar egonkorra. Taldekatze ideala, ikasleetako bat gaitasun eta errendimendu altukoa izatea, bi pertsona errendimendu ertainekoak eta beste pertsona bat errendimendu baxukoa.

Gaineratuz, soziograma baten bidez ikusi beharreko ikasleen arteko preferentzia eta bateraezintasunak kontuan hartuko direla.

- b. **Noizbehinkako taldeak.** Jarduera edota saio bakar bat egiteko sortutakoak izan ohi dira. Kasu honetan taldekatzeak 2 pertsonetatik 8 pertsonetara pasa daitezke eta gutxi gora behera heterogeneoak (jakintzan zein sexuan) izan behar dute.
- c. **Aditu taldeak.** Buruhauste edo puzzle teknikan erabiltzen dira, zeinak ikaskide bakoitza gai batean bihurtzen den aditu eta ondoren gainontzeko ikaskideei irakasten die.

2.4.2. Ikaskuntza kooperatiboaren metodo eta teknikak.

Teknika kooperatibo ezberdinak existitzen dira, sinpleak zein konplexuak baina guzti horiek aurreko ezaugarriak betetzen dituzte: talde lana, heterogeneoak, taldeko interdependentzia eta talde lorpenen aurrean saria jasotzea.

Hainbat metodo deskribatuko dira hurrenez hurren, Slavin (1999) autorearen arabekoak izanik:

- a. **Talde lana, banakako lorpena (Trabajo en Equilo-Logro Individual. TELI).** Honako metodoan 4 pertsonetako taldeak osatzen dira eta haien artean errendimendu, genero dibertsitatea eta etnia ezberdintasun bat aurkitzen da. Irakasleak lana aurkezten du, taldean lan egiten dute eta edukiak kontrolpean dituztenean eta banaka galdetegi batzuk erantzuten dituzte. Emaizak aurretik egindako beste jarduera batzuekin konparatzen dira eta puntuaketa izan duten garapenaren arabera izanen da. Banakako puntuaketa horiek taldekideen artean gehitzen dira eta taldeko puntuazio jakin bat lortzean dator saria.
- b. **Talde arteko txapelketak (Torneos de Juego por Equipos. TJE).** Metodoaren egikaritzea aurrekoaren oso antzeko da baina galdeketa indibiduala txapelketengatik ordezkaturik. Txapelketetan ikasleak puntuak irabazi behar dituzte haien taldearentzat beste talde batzuetako ikasleen aurka arituz. Txapelketak 3 pertsonetako taldeetan banatzen dira eta jakintza maila antzekoetan, ondorioz kompetentzia antzekoa duten ikasleak elkarrekin lehiatzen dira. Beraz, errendimendu eta garapen baxua duten ikasleen arrakasta lortzen da. Lehia

horretan puntuazio hoberena lortzen duenak 60 puntu ematen dizkio bere taldeari, horrela denek dute aukera haien taldeei puntuaketa on bat eramateko.

- c. **Buruhauste edo puzzle metodoa.** Taldekatzea bera da eta bertan ikasle bakoitza gai batean aditu bihurtzen da. Beste talde batzuetako gai bereko adituekin elkartzen dira edukiak hobeto barneratzeko eta adosteko. Behin ikasle bakoitzak bere gaian aditua bilakatzen denean, bere taldera bueltatzen da gainontzeko taldekideei gaia irakastea. Ebaluazioa TELI metodoan bezala egiten da.
- d. **Taldekako ikaskuntza bizkortua, (Enseñanza Acelerada por Equipos. EAE).** Metodo hau matematiketan erabiltzeko diseinatua dago. Bertan maila ezberdineko ikasleak hartzen dira kontutan erritmo ezberdinetan lan egiteko. Hasierako ebaluaketa bat ematen da ikasle bakoitzaren gaitasuna ikusteko eta behin ebaluazio hori egitean taldekatze heterogeneoak ematen dira. Beraz taldekide bakoitza unitate ezberdin batean aurkituko da baina haien artean laguntzeko aukera izango dute. Unitateen amaieran beste bakarkako frogak bat egiten da unitatean emandako edukiak menperatzen dituzten ikusteko. Talde bakoitzak puntuaketa bat izango du gainditutako unitateen kopuruaren arabera. Beraz, honek ikasleen arteko kooperazioan lagunduko du.
- e. **Taldeko Ikerkuntza (Investigación Grupal. IG). Sei etapatan egituraturako sistema bat da.**
 - a. Gaiaren identifikazioa eta taldeen egituraketa.
 - b. Ikaskuntza jardueraren planifikazioa.
 - c. Ikerkuntzaren egikaritzea.
 - d. Amaierako txosten baten prestatzea.
 - e. Amaierako txostenaren aurkezpena.
 - f. Ebaluazioa.

Amaitzeko, aipatu beharra dago ikasgelarako oinarrizko metodoak badira ere, gimnasio batean edota kiroldegi batean GH-ko ikasgairako erabilgarriak izan daitezkeela ere.

2.5. XXI. MENDEKO TRESNA METODOLOGIKOAK

Egungo hezkuntza sistema teknologiaren mendean aurkitzen den honetan, Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKT) tresna moduan berebiziko garrantzia dute ikaskuntzan. Honekin batera, paradigma aldaketak ikaslearen egoera irauli du eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikaslearen jokaera aktiboa, bere ekimena eta pentsamendu kritikoa aintzat hartzen dira. Hala nola, Estevek, (2016, p 58) dioten moduan *“...en este nuevo panorama, las tecnologías de la Información y de la Comunicación juegan un papel clave, ofreciendo nuevos contextos u posibilidades para el desarrollo de estas competencias”*.

XXI. mendeko metodologia berri moduan ezagututakoak, IKT-ak tresnatzat harturik ikaslearen autonomian garrantzia handia hartzen dute. Horietako batzuk aipatuko dira lanean, hala nola: Flipped classroom (ikasgela alderantzikatua), Gamificación (gamifikazioa), Pentsamendu diseinua, Arazoetan oinarritutako ikaskuntza, Rol jokoa, Proiektuen bidezko ikaskuntza eta azkenik eta aipatuta dagoen ikaskuntza kooperatiboa. Metodologia guzti hauek aktibotzat har daitezke eta horietako batzuk aurrera eramateko beharrezkoa da IKT-en erabilera.

2.5.1. Ikasgela alderantzikatua (Flipped classroom)

Blasco, Lorenzo eta Sarsak (2016) idatzitako artikuluan, teknika metodologiko honen abantailaz hitz egiten da, zeinak ikaskuntza eraginkor baten praktikan eragina duen. Horretarako egun dagoen kultura teknologikoarekin lotura zuzena duela adierazten da. Metodoak ikasleriaren errendimendua eta motibazioa hobetzea du helburu. Honetan oinarritzen da: Hurrengo egunean saioan aurrera eramango diren edukien lanketa bat egiten da etxean. Ondorioz, “etxerako lanak “ izan ohi direnak klasean egiten dira lan kooperatiboa eta autonomoari bide emanez.

2.5.2. Gamifikazioa (Gamificación)

Jolasen bidezko ikaskuntzan eta teknologiaren bidez jokoaren estrategiak barneratzean oinarritzen da. Horregatik, jolasek tresna hezitzaile moduan indar hartzen hasi dira. Izan ere egoera errealean simulazioak esperientzian oinarritutako ikaskuntza dakarrelarik Monguillot, González, Zurita, Almirall eta Guitert (2015) autoreen arabera.

2.5.3 Pentsamenduaren diseinua (Design thinking)


Metodologia berritzaile moduan, honek ikustarazten du IKT-ek hezkuntzan jokatzen duten papera. Desing Thinking ikasleek izan ditzaketen arazoak modu kolektiboan eta kooperatzailean aurre hartzen laguntzen du Toledo, Garber eta Madeira. (2017).

2.5.4. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza

Irakaskuntza metodo hau ez da berria eta Navarrok (2006) Idatzitako artikuluak dioen moduan 1970. urtean sortzen da. Arazo errealeen eta material zein edukien erabilera adierazgarria da ikaskuntzan.

Metodoak talde txikitik eginiko lan kooperatiboan parte hartzea eskatzen du. Arazo erreal bati erantzun ezberdinak ematera behartuz, horretarako segida bat ematen da praktika burutzeko.

Irudia 3. Arazoetan oinarritutako metodologiaren faseak.



Iturria: Navarro L.P. (2006)

2.5.5. Rol jokia

Partaidetzan oinarritzen den metodologia aktiboa da eta ikasleek rol ezberdinak hartzen dituzte. Behin bakoitzak bere rola izanik egoera erreala izango balitz moduan jokatzea da helburua. Metodo honen arrakastarako garrantzitsua da ikasle bakoitzari egokitutako rola. Rodriguez (2016) autorearen hitzetan honakoa dio metodologia honetaz: “...la simulación es una herramienta educativa de gran utilidad ya que en la

misma los participantes no son actores y siguen siendo ellos mismo y toman las decisiones que consideran adecuadas.”

2.5.6. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza

Honako metodoa ez liteke esango XXI. mendekoa denik, izan ere García-Varcalcel eta Balistotak (2017) idatzitako artikuluan, Dewey autoreak aipatzen da eta honek 1993. urtean metodoak duen garrantzia azpimarratzen du ikaskuntzarako egiten diren diziplina anitzeko proiektu gisara. Metodoa zereginetan oinarritzen den ikaskuntza-irakaskuntza moduan defini daiteke, honek amaierako produktu bat helburu izanik. Irakats estilo honek, ikasleengan ikuspuntu kolektibo batez lan autonomo eta banakakoa bultzatzen du.

Aurretik ikusi eta aztertu berri diren metodologiak ez dira dauden bakarrak, izan ere metodologia ezberdin asko dago, baina horietako askok zer esan handia izango dute proposatuko den GHko DBHko 1.mailako Programazio didaktikoaren Unitateetan. Aurretik aipatu moduan, kooperazioa oinarritzat duen metodologia izango da lehenetsiko dena baina eduki eta egoeren arabera erabat uztargarriak diren beste zenbait metodologia erabiliko dira.

3. PROPOSAMENA

3.1. LANAREN HELBURUA

Lan honen helburuetako bat DBH 1. Mailarako kooperazioan oinarritutako programazio didaktiko baten proposamena aurkezteaz gain, GH gure hezkuntza sisteman duen garrantziaz jabetzea du helburu. Honek zein eragin positibo dituen, hala nola ikasleen garapenean, harremanetan, autonomian etab. kontura araztea da. Ondorioz, GHko saioetan metodologia eraginkorrek erabiliz, hezkuntza inklusibo, integral eta lankidetzan oinarritutakoa lor daitekeela ikustarazi nahi dut. Nire ustetan kooperazioan eta hainbat irakats estilo berritzaileetan oinarritutako jarduerak proposatzen dituen lan tresna egoki bat diseinatzea posible da. Honekin batera, Nafarroako Foru komunitatea subjektu izanik, egun bertan indarrean dauden hezkuntzako lege kurrikularrak LOE(2006) zein LOMCE (2013) erabiliko ditut proposamenarekin aurrera egiteko. Zehazkiago, 24/2015 FORU DEKRETUA, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

3.2. METODOLOGIA

Ondorengo lerroetan aurkezten den proposamena aurrera eramateko erabilitako metodologia azalduko da. Hala nola, jarraitu den prozedura zein faseak eta erabili diren tresnak esplikatuz.

3.2.1. Prozedura

Hasteko, bilketa bibliografiko garrantzitsu bat egin dut GH eta metodologia deskribatzeko lagungarri izanik. Ondoren, irakats estilo jakin batzuetan, bereziki Delgado Noguerak (1991) sailkatutakoetan zentratu naiz, metodologia kooperatiboan eta amaitzeko, egun tresna moduan erabiltzen diren XXI. mendeko metodologiak izan ditut hizpide. Lehen Hezkuntzako graduan eginiko GrAL-ak asko lagundu nau metodologiaren egituraketan. Izan ere, GHko metodologia modu egoki batean planteatzeko estrategiaz diharduen lan bat egin nuen motibazio osoz.

Ondoren, proposamen egoki bat aurrera eramateko atalak aztertu dira. Hala nola, esku hartzea egingo den testuinguruaren azterketa batekin hasiko da, herriaren eta ikastetxearen diagnosi labur bat eginez. Era berean, ikastetxeko proiektuaren edukia

aztertuko da. Segidan, ikasleen ezaugarri psikologikoak eta etaparen helburu orokor eta ekarpenak aipatuko dira.

Unitate Didaktikoarekin (UD) hasi baino lehen, GHren helburuak, edukiak zein ebaluazio irizpideen deskribapena ematen da DBH 1.mailako Curriculumak kontutan izanik. Amaitzeko, UD baten garapena osoki azalduko da besteak beste, bertan erabiliko diren metodologiak zehaztuz, finean programazio batek izan beharreko ezaugarriak aipatuz. Lanaren bolumena txikitzeko asmoz, kooperazioan oinarritutako UD bakar bat deskribatu dut.

Azkenik, proposamenaren balorazio pertsonal bat egiten dut, ondorio batzuekin amaituz.

3.2.2. Tresnak

Programazio zein UD-ak garatzeko kontuan izan diren dokumentuak honakoak dira:

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxearen erabaki eta proiektu handiei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria da. Eskola-komunitateak, bere autonomiaren bidez, ikastetxe horretarako osatutako hezkuntza-aukera adierazten du bertan. Ondorioz, IHP proposamen integrala eta globala da; ikastetxearen beraren ezaugarrien analisia aintzat hartuta, bere ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du. Halaber, Ikasle guztiei kalitatean eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza emateko konpromisoa islatzen du, gizarte-bizitzarako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten eta, horien bidez, eskola-arrakasta lor dezaten. Aldi berean, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua familien, ikasleen eta ikastetxean aritzen diren profesionalen arteko elkargunea da. Gune horretan, eragile bakoitzak hezkuntzari buruz duen ikuspegia eta ikastetxearen ingurunearen interpretazioa plazaratuko ditu, eta guztien artean, hezkuntza-jarduerak oinarri izango dituen konpromisoak adostuko dituzte.

Ikastetxearen Curriculum Proiektua

Aipatzekoa da ere Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) islatu beharra dagoela honako dokumentuan Beti ere IHP egin ondoren beharrezkoa den dokumentua da

honakoa. Izan ere PD idazteko irakasleen arteko akordio bat eman behar da, baita departamentu guztien artean.

Dokumentu honen xedea, ikastetxearen eginkizun didaktikoa zein izango den zehaztea da baita irakasleen portaera kurrikuluma lantzerako orduan. Curriculumarekiko hartu beharreko erabakiak honako hauek dira: zikloko eta saileko helburuak eta gaitasunak (konpetentziak) erabaki eta sailkatu; sail bakoitzaren barruan zikloko edukiak aukeratu; metodo eta lehentasun didaktikoa argitu; espazio-eta denbora-antolakuntza azaldu; ebaluazio-irizpideak azaldu; erabili behar diren material didaktikoak erabaki.

3.3. LANAREN GARAPENA

3.3.1. Diagnostika

Herriaren, ikastetxearen eta gelaren diagnostika

Metodologia berritzaileetan eta zehazkiago esanik metodologia kooperatibo batean oinarritutako programazio didaktikoa ikastetxe publiko batean emanen da. Bertako ikastetxean Bigarren Hezkuntzako ikasketak ematen dira, hala nola DBH eta Batxilergoa.

Nafarroako herri batean kokatzen da ikastetxea eta zehazkiago esanik Sakanako bailaran, zeinetan bere populazioa 20.000 biztanlekoa den. Arakilgo korridorean kokatzen da eta Araba zein Gipuzkoarekin egiten du muga. Mendebaldetik hasiz, bere lehenengo herria Ziordia da eta Iruñearanzko ibilbidea osatuz, Izurdiagarekin amaitzen da bailara. Hala nola, ikastetxea bailarako biztanle gehien duen herrian kokatzen da.

Aipaturiko herriak bailarako gainontzeko herri gehienek bezala, industria eremuan lan egiten duten enpresa garrantzitsuak izan ditu. Horrek, bailarara aberastasuna ekarri izan duelarik. Ondorioz, biztanleria gehientsuenaren maila sozioekonomikoa ertain-altua izatea dakar. Hala ere, azken urteetan gertatutako krisiak bortizki jo du bailara eta horrek eragina izan du familia askotan. Horrenbestez, ondoriozta daiteke egun maila sozioekonomiko ertaina duten familia gehiago daudela.

Erliebeari dagokionez, herria hainbat mendiz inguratua dago, besteak beste: Aralar, Andia, Urbasa, Aratz, Aitzkorri... Gaineratuz, hizketa-gai dugun ikastetxeak inguruan

duen harizti ezagun eta aberatsa. Beraz, ikastetxea leku aproposan aurkitzen da Gorputz Hezkuntzako ikasgaia garatzeko.

Ikastetxearen ezaugarriei dagokionez, Nafarroako foru komunitatean Foru hobekuntza oinarritzat hartuz, Nafarroako oinarritzako arau instituzionalak dio Gaztelania ez ezik, Euskarak ere bere ofizialtasuna hartzen duela eremu euskaldunetan. Hori dela eta, honako ikastetxean euskara hizkuntza ofiziala da eta D ereduak hartzen du nagusitasuna A ereduak minimoak betetzen dituen arren.

Zentro honek, egitura antolatu jakin bat du, zeinak batetik zuzendaritza taldea aurkitzen den, zuzendaria, zuzendariordea, 2 ikaste-buru, 70 irakasle eta idazkari batekin. Bestetik, ematen diren ikasgaietako departamentuak aurkitzen dira beren Departamentu-buruekin. Horrenbestez, departamentu-buru eta zuzendaritza taldeak klaustroa deritzona osatzen dute.

Giza baliabideei dagokionez, batetik APYMA (Asociación de Padres y Madres) 10 pertsonaz osatzen da. Bestetik, 431 ikasle, 70 irakasle, 2 idazkari, 2 bedel, mantenuzko pertsona bat. Azkenik baina ez garrantzia gutxiagokoak, ezinbestekoak direnak, 2 garbitzaile.

GHn erabiltzen den **espazioa** kontutan hartuz, ikastetxeak espazio anitzak ditu. Hala nola, gimnasio bat du eraikinaren barruan, kanpo aldean patio handi bat bere belardiarekin eta eraikin nagusiari eransten zaion kiroldegi bat. Dutzak ikastetxeko eraikin nagusian eta kiroldegian daude.

Ikasleen garapen psikologikoa

DBHn aurkitzen diren ikasleak nerabeak direla esan daiteke, izan ere nerabezaroa gutxi gora behera 12 urtetatik 18 urte bitarteko trantsizioa da. Aipatu berri diren urteak ez dira zehatzak, pertsona bakoitzak bere prozesua du eta lehenago edo beranduago has daiteke eta ondorioz lehenago edo beranduago amaitu ere. Álvarezek (2010) idatzitako artikuluak nerabeen garapen psikologikoaz dihardu eta hurrengo lerroetan aipatuko diren ezaugarriak berak azaldutakoak dira.

Honako etapan ikasleek aldaketa asko jasaten dituzte, bai fisikoki (gorputzaren aldaketa biologikoak) baita psikologikoki (pertsonalitate aldaketa, pentsamendu

kritikoaren agerpena etab.) ere. Ondorioz, hainbat aldaketa egoten dira esparru batzuetan. Hala nola, ezaugarri kognitiboetan eta ezaugarri fisiko-motoretan ere.

Ezaugarri kognitiboak

Kognitiboki aldaketa nabariak izaten dira arlo intelektualean eta hala berresten da Piageten (1950) genetikaren inguruko teorian. Horrek eragina du 12 urteetan pentsamendu abstraktuaren agerpen bat ematen dela operazio logiko-formalei bide emanez. Ondorioz, adin hauetatik aurrera ikasleek arrazoitzeko, hipotesiak planteatzeko, argudiatzeko eta analisiak egiteko kapazak direla .

Ondorioz, esan daiteke DBH 1. mailan egon daiteken ikasle orok gatazka kognitibo baten aurrean aurkitzen dela edota jada horretan dabilela.

Ezaugarri fisiko-motoreak

Etapan honetan nerabeen hazkuntza aldaketa hormonalei dagokionak dira. Neurriari dagokionean, estatistiken arabera neskek izaten duten neurri hazkuntza handiena hilerokoa jaitsi baino lehenagoko urtean izan ohi da. Mutilena aldiz, 14 urte inguruan indar fisikoa areagotzen da. Ezaugarri motoreen arabera, aurretik ez bezala etapa honetan mutilek haien indar fisikoa areagotzen dute eta nesketan indarra mantentzen da. Aldaketa horien eta gehiagoren aurrean nerabeek psikologikoki prestatu behar dira haien burua.

3.3.2. Etapako irizpide kurrikularrak

Aurretik aipatu moduan gaur egun bi hezkuntza lege daude martxan LOE (2006) eta LOMCE (2013). Praktikan, landu beharreko edukiei dagokionez ez du unitate didaktikoetan eragiten hauek berdinak izaten jarrai baitezakete. Baina aldaketa horiek eman direla justifikatzeko, edukiak, ebaluazio irizpideak (helburu moduan funtzionatzen dutenak) eta ikaskuntzako estandar ebaluagarriak aztertu behar dira.

Honako atalaren azalpen eta justifikaziorako, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculuma kontutan harturik, hurrenez hurren DBH 1.mailan GH-ren edukiak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzako estandar ebaluagarriak azaltzen dituen taula (ikus. Taula osoa I eranskina) erabiliko da.

Taula 2. DBH 1. maila. Gorputz Hezkuntza GH curriculum.

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK
1. MULTZOA.–JARDUERA MOTORRAK		
<p>1.Bakarkako jarduera motorrak ingurune iraunkorretan</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bakarkako kirola gizarte eta kultur gertakari gisa. • Kirol ekintzekin zerikusia duten abilezia motorrak erabiltzea. • Bakarkako kirol bateko oinarrizko keinu teknikoak egitea eta arauzko elementuak identifikatzea. <p>2.Jarduera motorrak aurkakotasuneko egoeretan</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko keinu teknikoak eta desplazamenduak. • Teknika, helburuak eta inplikaturik dauden gaitasun motorrak. • Printzipio estrategikoak eta oinarrizko jarrera. Joko arauak. <p>3.Jarduera motorrak lankidetzaren egoeretan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jokoen faseak taldeko kiroletan: kontzeptua eta helburuak. • Taldeko kirolen alderdi komunak nagusi diren jarduerak eta jolasak egitea. • Besteen eta norberaren gauzatze maila onartzea eta hobetzeko prest egotea. • Egiten diren jarduerak, jolas eta kiroletan aktiboki parte hartzea eta arauak errespetatu eta onartzea. • Jarduera fisikoa eta kirola gozamen eta aberastasun pertsonalaren iturri gisa bizitzea. <p>4. Ingurunera egokitzeko egoeretakoko ekintza motorrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirola eta jarduera fisikoa ingurune ez-iraunkorretan. • Hurbileko natur inguruneak kirola eta jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dituen aukerak. • Jarduerak egiteko oinarrizko ekipamendua, jardueraren iraupenaren eta baldintzen arabera. • Meteorologia, jarduera bat prestatzeko edo egiteko kontuan hartu beharreko faktore gisa. • Hiri eta natur ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasunekoak onartu eta betetzea. <p>5. Ekintza motorrak arte edo adierazpen egoeretan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gorputzaren adierazgarritasuna: jarrera, keinua eta mugimendua. Gorputzaren kontzientzia adierazpen jardueretan erabiltzea. • Adierazpen jarduerak egiteko orduan, erritmo desberdinak konbinatzea eta objektu desberdinak erabiltzea, bai bakarka bai taldean. • Adierazpen jardueretan aktiboki parte hartzea, adierazpenaren agerbide edo modalitate desberdinak erabiltzea eta desinhibizioaren aldeko jarrera izatea. 	<p>1. Norberaren egoera motorrei irtenbidea ematea, proposatutako kirol jarduerak fisikoen oinarri teknikoak aplikatuz.</p> <p>2. Hainbat egoera motorri irtenbidea ematea (aurkakotasunekoak, lankidetzakoak edo lankidetzaren aurkakotasunekoak) estimulu nagusien arabera estrategia egokiak erabiliz.</p> <p>3. Kirol jarduerak fisikoen aisialdi aktiboak egokitzeko eta ingurunea egoki erabiltzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.</p> <p>4. Mezuak bakarka edo taldeka adieraztea eta komunikatzea gorputz adierazpenaren teknika erabiliz.</p>	<p>1.1. Proposatutako jardueren eredu teknikoaren oinarrizko alderdiak gauzatu dituzte.</p> <p>1.2. Bere gauzatze maila ebaluatzen du, proposaturiko eredu teknikoarekin alderatuz.</p> <p>1.3. Eredu teknikoan inplikaturiko mugimenduak egiteko modua deskribatzen du.</p> <p>1.4. Hautaturiko jardueraren oinarrizko teknikak azaldu eta aplikatu ditu, eta ingurunearekin errespetuzko jarrera eta ohiturak erakusten ditu.</p> <p>2.1. Oinarri tekniko eta taktikoak egokitzen ditu proposatzen zaizkion aurkako tasuneko eta taldekako kirol jarduerak fisikoetan abantaila lortzeko.</p> <p>2.2. Hautatu duen taldekako kirolean, eraso eta defentsa antolatzeak aukerak azaldu eta bere kasa aplikatu ditu.</p> <p>2.3. Lankidetzako, aurkakotasuneko edo lankidetzaren aurkakotasuneko egoeretan erabakiak hartu behar direnean kontuan hartu beharreko estimuluak diskriminatzen ditu, abantaila lortzeko edo ekintzaren helburua betetzeko.</p> <p>2.4. Ebatzitako egoerei buruzko gogoeta egiten du, hartutako konponbideen egokitasuna eta antzeko egoeretan duten aplikagarritasuna baloratuz.</p> <p>3.1. Inguruneak kirol jarduerak fisikoak egiteko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzen ditu.</p> <p>3.2. Ingurunea errespetatzen eta baloratzen du, kirol jarduerak fisikoak egiteko denontzako tokia den aldetik.</p> <p>3.3. Gaur egungo testuinguru sozialean, gorputzaren tratamenduetan, aisialdiko jardueretan, jarduerak fisikoekin eta kirolarekin lotutako bizimodua eta jarrerak analizatu ditu ikuspuntu kritiko batetik.</p> <p>4.1. Keinua eta mimika erabiliz, mezu bat prestatu eta jakinarazten du talde baten barruan.</p> <p>4.2. Adierazpen dantzak taldeka egitean, aktiboki parte hartzen eta laguntzen du.</p>

4. URTEKO PROGRAMAZIOAREN PLANIFIKAZIOA

DBHko 1.mailari zuzendutako urteko programazioa VI. Eranskinetako taulan agertzen diren irizpideen arabera izan da. Bertan, ebaluazio irizpide moduan adierazten diren puntuak, helburuak definitzen lagunduko dute. Izan ere, irizpideak helburuak ebaluazio irizpideen arabera finkatzen baitira. Behin aipatu berri diren adierazleak kontutan izanik, urteko programazioa planifikatzea izango da hurrengo pausoa.

4.1. ARLOKO HELBURUAK:

1. Norberaren mugimenduak kontrolatzea eta norberaren aukerak hobeki ezagutzeko gaitasuna.
2. Gorputz eskema garatzeko eta banakako abileziak lortzeko gaitasuna.
3. Aurkariaren ekintzak ongi interpretatzea, ekintza egokia aukeratzea, ekintza gauzatzeko une egokia aukeratzea eta erabaki hori gauzatzeko gaitasuna.
4. Arreta orokorra eta selektiboa, bien arteko koordinazioa egoki erabiltzea gainerako parte-hartzaileen ekintzak interpretatzeko gaitasuna.
5. Estrategia kolektiboa aintzat hartuz besteak aurreikustea eta norberaren ekintzak aurreratzeko gaitasuna.
6. Arauak errespetatzeko eta espazioan eta denboran egituratzeko gaitasuna.
7. Lankidetzaren egoerak sustatu, talde lanean aritzeko gaitasuna.
8. Inguruneari eta jarduerari egokitzeko gaitasuna.
9. Adierazpen artistikoa eta komunikatzeko gaitasuna.
10. Irudimena eta sormena adierazteko, inhibizioa gainditzeko gaitasuna.
11. Edozein jardueraren erabilera modu osasungarrian aplikatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna.
12. Ikasleek jarduera fisikoa behar den bezala egiten ikasi eta norbera eta kolektiboaren osasuna bermatzeko gaitasuna.

4.2. DBH 1.MAILAKO IKASLERIAAREN EZAUGARRIAK

1. Taldeko Maila akademikoa homogenea izango da, kontutan hartuz Lehen Hezkuntzako 6 kurtsoak gainditu dituztela eta DBH-ko zikloan hastear daudela.
2. Garapen motorrari dagokionean, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak ez dira aurreko etapan bezain nabariak. Izan ere, nesken garapena azkarragoa izan ohi da eta adin hauetan mutilak garatzen hasten dira.
3. Ez dago aniztasun funtzionalik pairatzen duen ikaslerik, baina bai Jarduera Fisikoan besteak baino jaioagoak diren ikasleak eta hain onak ez direnak ere.
4. Motibazio orokorrari dagokionean, oso maila ezberdinak daude eta oso motibatuak dauden ikasleak ageri diren arren, Jarduera Fisikoa gustuko ez duten ikasleak ere aurki daitezke.

4.3. BEDERATZI UNITATE DIDAKTIKOEN LABURPENA

Kurtsoko hiru ebaluaketetan landuko diren 9 UD-ek erantzuna ematen saiatzen dira testuinguruari, etapako helburu zein edukiei eta ikasleen beharrei. Jardun honetan irakaslearen helburu garrantzitsu bat ikasle guztiek ondo pasatu eta disfrutatzeko aukera izatean datza. Horretarako oso garrantzizkoa izanen da metodologia kooperatiboa tresnatzat hartzea baita ebaluazio irizpideak ahal den neurrian ikasleekin adostea.

Finean ikasleek haiena sentitu behar dute ikasgaia eta horretarako haien hitzak garrantzi bat izan behar du. Ondorioz, irakasleak asanbladak erabiliko ditu ebaluazio hasiera bakoitzean ikasleekin ebaluazio irizpide minimoak adosteko.

Segidan azalduko diren tauletan ebaluazio bakoitzean landuko diren UD-ak modu labur eta sinple batean azalduko dira. Behin guztiak laburki azalduta, ondorengo atalean proposamenari ekingo zaio haietako bat garatuz.

Taula 3. Programazio didaktiko laburtua

IKASTETXEAREN IZENA	BHI ALTSASU			KODEA:	2017-2018		
ARLOA	GORPUTZ HEZKUNTZA						
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<p>1. Norberaren mugimenduak kontrolatzea eta norberaren aukerak hobeki ezagutzeko gaitasuna.</p> <p>2. Gorputz eskema garatzeko eta banakako abileziak lortzeko gaitasuna.</p> <p>3. Aurkariaren ekintzak ongi interpretatzea, ekintza egokia aukeratzea, ekintza gauzatzeko une egokia aukeratzea eta erabaki hori gauzatzeko gaitasuna.</p> <p>4. Arreta orokorra eta selektiboa, bien arteko koordinazioa egoki erabiltzea gainerako parte-hartzaileen ekintzak interpretatzeko gaitasuna.</p> <p>5. Estrategia kolektiboa aintzat hartuz besteak aurreikustea eta norberaren ekintzak aurreratzeko gaitasuna.</p> <p>6. Arauak errespetatzeko eta espazioan eta denboran egituratzeko gaitasuna.</p> <p>7. Lankidetzaren egoerak sustatu, talde lanean aritzeko gaitasuna.</p> <p>8. Inguruneari eta jarduerari egokitzeko gaitasuna.</p> <p>9. Adierazpen artistikoa eta komunikatzeko gaitasuna.</p> <p>10. Irudimena eta sormena adierazteko, inhibizioa gainditzeko gaitasuna.</p> <p>11. Edozein jardueraren erabilera modu osasungarrian aplikatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna.</p> <p>12. Ikasleek jardueraren fisikoa behar den bezala egiten ikasi eta norbera eta kolektiboaren osasuna bermatzeko gaitasuna.</p>

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazio	2. ebaluazio	3. ebaluazioa
	<p>- Bakarkako jardueraren motorrak ingurune iraunkorretan.</p> <p>- Jardueraren motorrak aurkakotasuneko egoeratan.</p> <p>- Jardueraren motorrak lankidetzan egoeratan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe.</p>	<p>- Ekintza motorrak arte edo adierazpen egoeratan.</p> <p>- Jardueraren motorrak lankidetzan egoeratan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe.</p>	<p>--Jardueraren motorrak lankidetzan egoeratan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe.</p> <p>- Jardueraren motorrak aurkakotasuneko egoeratan</p> <p>- Ingurunera egokitzeko egoeretako ekintza motorrak.</p> <p>- Bakarkako jardueraren motorrak ingurune iraunkorretan.</p>
OSASUNA: Muntzo honi dagozkion edukiak UD-ko guztietan landuko dira.			

3 UNITATE DIDAKTIKOAK					
1. ebaluazio		2. ebaluazio		3. ebaluazioa	
1	Aurkezpena. Prestaketa fisiko orokorra. (Test fisikoak)	4	Zirkoa: malabareak, akrosport eta mimika	7	Talde kirolak: Futbola, saskibaloia, kinball, eskubaloia eta boley.
2	Joko-Jolasak eta mugimen abileziak	5	Esku pilota	8	Herri Kirolak: lokotxa, zakua, txingak, fardo altxaketa eta trontza.
3	Inplementu kirola: Tenis, zestapunta, badminton, jokcey.	6	Gorputz Adierazpena: Itzalak, itzal txinatarrak eta antzerkia.	9	Atletismoa: Olimpiadak
				10	Hasierako testak eta Orientazioa

4 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA ETA TRESNA METODOLOGIKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> ❖ Metodologia kooperatiboa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Rol jokoa ○ Flipped classroom ○ Aritu taldeak edo puzzle metodoa. ❖ Ikaskuntza gidatua 	

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK.	EBALUAZIO TEKNIKAK ETA TRESNAK
	1. Norberaren egoera motorrei irtenbidea ematea...	1.1. ; 1.2. ; 1.3. ; 1.4.;	Zerrenda kontrolak Koebaluazio fitxa Erronka kooperatiboa Banakako errubrika lan kooperatiboan. Banakako errubrika gaitasun komunikatiboetan. Banakako errubrika gaitasun motorretan.
	2. Hainbat egoera motorri irtenbidea ematea...	2.1. ; 2.2. ; 2.3. ; 2.4.;	
	3. Kirol jarduera fisikoek aisialdi aktiboa edukitzeko eta ingurunea egoki erabiltzeko...	3.1. ; 3.2. ; 3.3.	
	4. Mezuak bakarka edo taldeka adieraztea eta komunikatzea...	4.1. ; 4.2. ; 4.3. ; 4.4.;	
	1. Gaitasun fisikoak norberaren ahalmenaren arabera eta osasimaren mugaren barrenean garatzea.	1.1. ; 1.2. ; 1.3.	

6 BALIABIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> • IKT (Arbel digitala, ordenagailuak, bideokamerak) • Materialen birziklapena (hesiak: iturgintzako tuboekin; Jabalinak: uttritzaz eginiko makilekin; Lekukoak: lokotxak...) • XXI. Mendeko metodologiak 	

5. LANAREN GARAPENA: 9.UNITATE DIDAKTIKOAREN GARAPENA

5.1. IKASKUNTZA HELBURUAK

Modu zehatz batean, lan honen helburua mugimenduaren bidez ikasle konpetente eta baloreetan hezitakoak sortzea da. Konpetentzia giltzak zeharkako modu baten egonen dira presente. Finean GH ikasle guztiengana hurbiltzean datza, haien artean ezberdintasunik egon ez dadin. Aurretik aipatutako arloko helburuez gain, Unitate Didaktikoaren bidez bilatzen dena zera da:

1. Kooperatiboki lan eginez, laguntasun giro bat sortzea.
2. Autonomia pertsonala hobetzea.
3. GHko Saio baten egituraketa ulertzea.
4. GH praktikatzuz 7 konpetentzia giltzak hobetzea
5. GH-ko kurrikuluma ezartzen duen Foru Dekretua 24/2015 Apirilaren 22koa delakoak ipinitako edukiak modu berritzaileez garatzea.

5.2. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIO KURRIKULARRA

Egun, LOMCE bezala ezagutzen dugun azken hezkuntzako legeak ez du aurrekoa LOE (2006) indargabetzen baina bai aldatu. Bi lege hauek indarrean aurkitzen dira, honenbestez bertan aipatuko diren erreferentziak egun onartzen den kurrikulumetik hartutakoak izango dira. LOMCEren arabera DBH hiru motatako ikasgaiak aurki daitezke. Batetik Enborreko irakasgaien multzoa, bestetik irakasgai espezifikoen multzoa eta azkenik autonomia erkidegoen konfigurazio askeko irakasgaien multzoa. Hori dela eta, **GH ikasgai espezifikoen multzoan** sartuko litzateke. Gaineratuz, 46/2015 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituenak dio Gorputz Hezkuntzako ikasgaiak **2 orduko** iraupena izan behar duela astean.

Kurrikulumari dagokionean, 24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, kontutan hartuz, honek adierazten dituen eduki, ebaluazio irizpide eta ikaskuntzako estandarrak hartuko dira kontutan programazioa egiterako momentuan.

Gaitasunetan oinarritzen den planteamendu integratzailea oinarritzat hartuz, eta kurrikulumaren ezaugarriak aintzat hartuz, lortu beharreko helburuak metodologia berritzaileen eskutik emanen dira. Horretarako, hainbat tresna erabiliko dira ikaskuntza irakaskuntza prozesuak era esanguratsu batean eman daitezen.

5.3. PROPOSAMENA

Hautatutako ikasgaia Gorputz Hezkuntza izango da eta aztertuko den taldea 25 ikaslez osatutako DBH 1. Mailako talde bat izanen da, zehazkiago 11 mutil eta 14 nesken talde bat. Aurretik aipatu moduan, astean 2 ordu eskaintzen zaizkio GH-ri. Ikasleen artean ez da errepikatzailearik eta ikasleen arteko ezberdintasunak garapen motorrean ematen dira gehien bat. Normala den moduan ikasgaiaren egikaritzan oso onak, onak eta ez hain onak diren ikasleak daude

Planteatutako UD-a amaierako proiektu moduan planteatzen da eta ikasleek diseinatutako "Olinpiadak" gauzatzean datza. UD-a Apirila amaieran eta Maiatza osoan landuko da. Kurtso amaieran izatearen zergatia eguraldia eta ikasleek eskuratuko dituzten trebetasun zein gaitasun anitzengatik da.

Kurtso amaieran dagoeneko eguraldiak hobera egiten du eta atletismoak eskaintzen dituen modalitateak praktikatzeko kiroldegia ez den beste esparru batzuk komenigarriagoak dira. Gainera, ikastetxearen ondoan atletismo pista bat dago eta honen erabilera puntu erakargarri bat suposa lezake ikasleentzat. Bestetik, DBHko 1. mailan egonik, hasieran taldea kohesionatzeko arazoak egon daitezke elkar ezagutzen ez diren ikasleak egon daitezkeelako. Beraz, kurtso amaieran kohesio hori solidoagoa izan daiteke. Amaituz, ikasturte oso batek ikasleengan era positiboan eragin dezake hasierako lotsak alde batera uzteko baita trebetasun eta gaitasun komunikatiboak garatzeko. Horregatik, ikasleak prestatuagoak egon daitezke saioaren gidari izateko eta UD honetan erabiliko den metodologian parte hartzeko.

5.3.1. Taldekatzea

Gehien iraugo duen UD-a izanen da erabiliko den metodologiagatik. Ikasle guztiak pasako dira monitore zein gidari lanetatik eta taldeetan modu kooperatiboan lan egingen dute. Gehien bat 5 pertonez osatutako 5 taldek hartuko dute parte Udan eta taldekatzea ikasleek berauek egin beharko dute baina duten premisa errespetatuz, hau da taldeak mistoak izatea eta heterogeneoak gaitasunei dagokionez.

Irakaslearen lana taldeak aztertzea izanen da eta jarritako irizpideak betetzen diren ikusi beharko du. Hala ez izatekotan, aukera legoke irakasleak berak behar diren aldaketak egiteko. Horretarako, irakasleak bost ikasle hautatu ditzake, GHko ikasgaien hain jaiok ez direnak eta haien aukeratuko dute lehenengo taldekidea. Honela, gehitzen doazen pertsonen artean erabakiko dute azkenik zein talde osatu.

5.3.2.UD-aren kronograma.

Olinpiadatan oinarrituko den proiektu honek ia bi hilabete iraungo ditu. Apirilaren 1etik Maiatzaren 24rako epea izanen du. Zortzi aste zehazkiago esanik eta osotara 16 ordu, astearte eta ostegunetan.

APIRILA							MAIATZA						
1	2	3	4	5	6	7		1	2	3	4	5	
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26
29	30						27	28	29	30	31		

Ikasleek UD-arekin izango duten lehenengo kontaktua, bideoz izango da. Hau da, Flipped classroom delako metodologia erabiliko da gaiari buruzko argibide guztiak emateko. Honela, ikasleak haien etxeetan plataformara igotako bideo bat ikusiko dute eta lehenengo saiora planteamenduaren berri izanik azalduko dira. Horrek denbora aurrezteko ekarriko du eta saioaren iraupena UD-aren egikaritzari emanen zaio.

Lehenengo astean (Apirilaren 2a eta 4a) taldeen osaketa egingen da eta momentu hortatik aurrera modu kooperatiboan arituko dira. Beraz, Bideoan azalduetako helburuetara iristeko talde bakoitzak atletismoko kirol modalitate bat (Jabalina jaurtiketa, pisu jaurtiketa, hesiak, erreleboak eta luzera jauzia) aukeratuko du haren inguruko informazioa bilatzeko. Ondoren informazio bilaketarekin lan bat egin beharko dute ikaskide guztien aurrean kirol modalitate horren inguruko informazioa helarazteko.


Talde bakoitzak haien kirol modalitatearen inguruko informazioa bildu ondoren, **bigarren astean (Apirilaren 9 eta 11an)** bi saio diseinatuko dituzte ikaskideei kirol horren teknika irakasteko asmoz. Helburuetako bat ikasleek saio baten egituraketa

(beroketa, atal nagusia eta lasaitze atala) zein den barneratzean datza. Horrekin loturik, jolas eta jardueren bidez teknika lantzeko estrategiak bilatzea ere.

UD-arekin jarraituz, **hirugarren astetik zazpigarren astera (Apirilaren 16 eta 18tik Maiatzaren 14 eta 16ra)**, diseinatutako saioak praktikan jartzeko tartea izango da. Saio horiek, taldeak aukeratutako modalitatearen inguruko azalpen xume bat zein bitxikeriaren batekin hasi beharko dituzte. Azalpen motzaren ondoren, taldeko norbanako bakoitzak irakasle zein monitore rola hartu beharko du eta diseinatutako saioak aurrera eraman beharko dituzte bi egunez.

Azkenik eta bukatzeko, **zortzigarren astean (Maiatzaren 21a eta 23a)** azkeneko froga iritsiko da Olinpiadak alegia. Egitasmoa, ikasleek eginiko lanaren fruituak ikusteko momentua izango da. Hemen jarriko dituzte praktikan aurretik ikasitako teknikak. Momentu honetan, puzzle teknika erabiliz, taldeak aldatu eginen dira beste bost talde osatuz. Talde berriak, “modalitate bakoitzeko adituz” osatuko dira. Honela, talde denek izango dituzte behar adina argibide froga bakoitzean modalitatean erabili beharreko teknikaz etab. Irakasleari dagokionez, epailea izateko rola hartuko du, dinamizazioa taldearen gain utziaz.

Irudia 4. Taldeen osaketaren mapa kontzeptuala



Iturria: Google irudiak.

5.3.3. UD-a eta konpetentzia giltzak (lomce, 2013)

Konpetentzia giltzak, LOMCEk konpetentziei ezartzen dien izena da. Lege honetan 7 dira konpetentzia giltzak eta esan daiteke pertsona batek halabeharrezkoak dituela bere garapen personalerako, inklusio sozial, enplegu zein hiritartasun aktibo baterako. Nafarroako curriculumean, heziberrin ez bezala konpetentziak zerrendatu besterik ez dira egiten eta ez dute heziberrik duen garapena eskaintzen. Heziberrik bere baitan “Konpetentzia motorra”

aipatzen du eta Nafarroako curriculumean ez da halakorik agertzen. Finean, LOMCEn oinarritzen da eta bestelako aldaketarik egin ez delako.

Halaber, proposamen honetan konpetentzia hauek guztiak zeharkako modu batean zein modu zuzen batean aurkitu daitezke. Ondorioz, aukeratutako eduki zein metodoek horien integrazioan lagunduko dute eta hurrenez hurren konpetentzia bakoitza proposamenean zein modutan eragiten duen azalduko da:

1. Ikasten ikasteko konpetentzia

Zerbait ikasteko modu eraginkorrik bada, hori berdinen arteko ikaskuntzan ematen da. Hau da, monitore lanetan arituko diren ikasleek haien ikaskideei kirolaren teknika erakusteko, hauek aurretiko prestakuntza bat izan behar dute eta honakoa praktikan jartzean bertan sortzen da ikaskuntza esanguratsua.

2. Ekimena eta ekintzaile espiritu konpetentzia

Denbora gutxian kirol batez bildutako informazioaz bi saio gauzatzeak gauza handia da eta ekimena eta ekintzaile espiritu hori areagotzen laguntzen du. Ikasleek dute autonomia guztia zer irakatsi nahi duten eta zein jardueren bidez nahi duten egin. Beraz, konpetentzia honek eskatzen duena minimoki bada ere ikasleek sentipen hori izan dezakete.

3. Gizarterako konpetentziak eta konpetentzia zibikoak

Ikaskideekin kooperazioan aritzeak, erlazioak irekiagoak izatea dakar. Kooperazioan aritzeak adostasunetara iritsi beharra eskatzen du eta denen arteko kolaborazioa beharrezkoa dela ikustarazteko balio lezake. Gainera, Olinpiadak lehiakorra den ekinbidea izan arren, talde batzuen artean emateak, taldeen barruan hain jaioak eta trebeak ez diren ikasleekin enpatia izatea eskatzen du.

4. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia

Talde bakoitzak hautatutako atletismoko modalitateari buruzko lan informatiboa azaltzerakoan konpetentzia hizkuntza komunikaziorako konpetentzia landu beharko dute. Gainera, saioetan irakaslearen edo monitorearen rol-a izatean erabili beharreko hizkuntza bestelakoa izan beharko du eta lagun arteko hizkuntza alde batera utzi beharko dute.

5. Konpetentzia digitala

Irakasleak flipped classroom metodoa erabiltzen duen moduan saioaren denbora eraginkorragoa gerta dadin, ikasleek ere haien saioen azalpenarekin gauza berbera egin dezakete. Baita, kirol modalitatearen teknika azaltzeko gamifikazioa erabili dezakete aurretiko ideia bat izan dezaten. Horregatik IKT konpetentzia oso presente izan behar dute gaur egungo hezkuntzan, zaila eginen ez zaiela.

6. Konpetentzia matematikoa eta Zientzietarako eta Teknologiarako konpetentziak.

Saio guztiek dute egitaritza denbora bat eta saioak diseinatzean ikasleek ondo kontrolatu beharko dute jarduera bakoitzari eskainiko zaion denbora. Honek aurretiko planifikazio bat dakar eta minutuak oso ondo kontrolatu beharko dituzte paperean planifikatutakoa errespetatzeko.

7. Kultura-kontzientzia eta adierazpena

Atletismoa gure herrialdean nahiko errotua dagoen kirola den arren, gaur egungo ikasleen jakintza eskasa da. Kirol honekiko izan dezaketen kontaktua ez da “kirol errege” askorekin dutenaren erdia ere. Beraz, kirol honen baloreak eta jakintza transmititu nahian ikasleak modu zuzen batean kirol honen praktikara bultzatu nahi dira.

6.3.4.UD-aren Saioen deskribapena

Taula 4. Saioen deskribapena. 0. Astea.

GAIA: ATLETISMOA. OLINPIADAK		DBH 1.maila	25 ikasle	0. Astea
Edukiak	-	Ebaluazio irizpideak	-	Ikaskuntz. estandar ebaluagarriak
Materiala eta tresnak	Euskarri teknikoak: mugikorrak, ordenagailuak... Flipped classroom metodoa			
Arloko gutx. Helburuak	6. Arauak errespetatzeko eta espazioan eta denboran egituratzeko gaitasuna; 7.Lankidetzaren egoerak sustatu, talde lanean aritzeko gaitasuna; 9.Inguruneri eta jarduerari egokitzeko gaitasuna;			
Deskribapena			Taldekatzea	Iraupena
1. SAIOA				
Irakasleak UDkoa azaltzeko erabiliko duen video bat argitaratuko du ikastetxeak duen plataforman birtualean. Bertan nondik norakoak aipatuko ditu eta ikasle bakoitzak bere etxean ikusi ta entzuteko aukera izango du.			Banakakoa	15'
2. SAIOA				
Bigarren atal honetan, ikasleek taldeak egiteko aukera izango dute. Horretarako irakasleak plataforman artxibo bat irekiko du zeinetan taldeak osatzeko irizpideak adieraziko dituen. Honekin, ikasleek, irakasleak banatutako 5 taldetan sartu beharko dituzte haien izenak baina dagoeneko talde bakoitzean izen jakin bat (irakasleak hautatutako ikasle bat, GH trebetasun handirik ez dutenak) dago. Irizpideak: <ul style="list-style-type: none"> Talde mistoak (3 neska eta 2 mutil edo 2 neska eta 3 mutil). Talde heterogeneoak, hau da trebetasun motorretan ezberdinak diren ikasleak. (honako irizpidea irakasleak bermatu beharko du.) 			Banakakoa	10'
Oharrak: Irakasleak aldeztu aurretik egin beharko du lan bideoen elaborazioan edota ebaluazio irizpideekin. Bideoa plataforman birtualean zintzilikatzeak, flipped classroom metodoaz baliatzea dakar. Honela, irakasleak berma lezake ikasleek IKT konpetentziak gutxika lortuz doazela.				

Taula 5. Saioen deskribapena. 1. Astea

GAIA: ATLETISMOA. OLINPIADAK		DBH 1.maila	25 ikasle	1. Astea
Edukiak	5	Ebaluazio irizpideak	4	Ikaskuntz. estandar ebaluagarriak 4.1. ; 4.2. ; 4.3. ; 4.4.;
Materiala eta tresnak	Euskarri teknikoa: mugikorrak, ordenagailuak... Aurkikuntza bidezko tresna metodologikoa			
Arloko Helburua	9. Adierazpen artistikoa eta komunikatzeko gaitasuna; 10.Irudimena eta sormena adierazteko, inibizioa gainditzeko gaitasuna.			
Deskribapena			Taldekatzea	Iraupena
1. SAIOA				
Irakasleak idatzizko lanak izan beharreko atalak azaltzen dituen eskema moduko bat (ikus. II.Eranskina) eginen du talde bakoitzari banatzeko. Ondoren, ikasleek atal bakoitza irduitzen zaien moduan garatu beharko dute dokumentu bat osatu arte. Dokumentua ez da oso luzea izango 4 orrialderekin nahikoa izango da. Beraz, Ina karga ez da handia izango eta saioa n bertan amaitzeko moduan aurkituko dira. Idatzizko lan hau ebaluatzeko errubrika bat egonen da (ikus. Eranskina III).			Bost pertsonetako taldeak	Ordu 1
2. SAIOA				
Talde bakoitzak aurkezpen bat eginen du gainontzeko taldeen eta irakaslearen aurrean. Aukeratutako kirolaren inguruko informazioa emanen dute. Aurretik osatutako dokumentuaren laburpen gisa alegia. Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu eta taldekide guztiek hartu beharko dute parte azalpenean. Azken 10 minutuak zalantzak argitzeko erabiliko dira.			Bost pertsonetako taldeak eta Banaka.	(10'x 5) Ordu 1
Oharrak: Irakasleak azkeneko 10 minutu horietan ebaluazio orokor bat eginen du aurkezpenen inguruko aspektu positiboekin zein ez hain positiboekin. Aurkezpenerako ere irakasleak errubrika bat (ikus. V. Eranskina) izanen du ikasleak ebaluatzeko garaian, ez da oso zorrotza izango, izan ere ikasleen lehenengotariko aurkezpena izango baita.				
Ebaluazioa: Taldekakoa: Idatzizko dokumentua, taldekako nota izango du eta bere balioa %10koa izanen da. (Ikus. IV.ERANSKINA) Banakakoa: Aurkezpena eta ikasle bakoitzaren azalpenak %10eko puntuazioa izango du eta banakakoa izango da. (Ikus. V.Eranskina)				

Taula 6. Saioen deskribapena. 2. Astea

GAIA: ATLETISMOA. OLINPIADAK		DBH 1.maila	25 ikasle	2. Astea
Edukiak	-	Ebaluazio irizpideak	-	Ikaskuntz. estandar ebaluagarriak
Materiala eta tresnak	Euskarri teknikoak: mugikorrek, ordenagailuak... Aurkikuntza bidezko tresna metodologikoa eta flipped classroom			
Arloko Helburua	7. Lankidetzaren egoerak sustatu, talde lanean aritzeko gaitasuna; 10. Irudimena eta sormena adierazteko, inibizioa gainditzeko gaitasuna.			
Deskribapena			Taldekatzea	Iraupena
1. SAIOA				
<p>Irakasleak beste behin, saio honen azalpen bideo bat eskegiko du. Hori dela eta ikasleek bideoa ikusi eta bertan eskatzen zaiena egin beharko dute. Kasu honetan, irakasleek saio batek izan beharreko atalez dihardu eta ikasleek haien saioak prestatzeko behar dituzten argibideak ematen ditu.</p> <p>Horrenbestez, saio honetan ikasleek haien bi saioak diseinatzen hasiko dira. Hauen helburua, aukeratutako kirolaren teknika, arauak etab ikaskideei modu erakargarri batean irakastea izango da.</p>			Taldeka	Ordu 1
2. SAIOA				
<p>Saio bakarrean helburuak zein edukiak finkatzea zaila izango denez, bigarren saio hau erabiliko da taldeek jarraipena eman diezaioten sortzen ari diren bi saioei. Saio honetan, planifikazioa amaitutzat eman behar da, hurrengo asteetan praktikan jar dezaten.</p>			Taldeka	Ordu 1
<p>Oharrak: Irakasleak zintzilikatutako bideoaren bitartez, GHko saio bat gauzatzeko egituraketaz hitz egingo die ikasleei. Hau da, beroketak duen garrantziaz hitz egingo du eta zein modutan egin daiteken (jolasen bitartez, ariketa zehatzak etab.), atal nagusi batek izan ditzaken atalak (orokorra zein espezifikoa) eta azkenik lasaitze atalak zer dakarren. Honetaz gain, helburuak zein edukien azalpena emanen du modu xume batean, eza da oso zehatza izango baina saioari bere nortasuna emanen dio.</p> <p>Ebaluazioa: jarduera honen ebaluazioa lan praktikoarekin bat joango da. Ez zaio garrantzia handirik emango idatzizko planifikazioan gerta daitezken akatsei, garrantzia handiena ikasleek saioak emateko modu koordinatuari eta jarrerari emanen zaio.</p>				

Taula 7. Saioen deskribapenak. 3.-7. asteak.

GAIA: ATLETISMOA. OLINPIADAK		DBH 1.maila	25 ikasle		3. -7. Asteak
Edukiak	1,2,3,4	Ebaluazio irizpideak	1,2,3,4	Ikaskuntz. estandar ebaluagarriak	-1.1; 1.2; 1.3; 1.4; 2.1; 2.2; 2.3; 2.4; 3.1; 3.2; 3.3; 4.1; 4.2;
Materiala eta tresnak	Rol jokoa. Tresna metodologikoak ikasleek hautatutakoak izango dira.				
Arloko Helburua	<p>1. Norberaren mugimenduak kontrolatzea eta norberaren aukerak hobeki ezagutzeko gaitasuna; 2. Gorputz eskema garatzeko eta banakako abileziak lortzeko gaitasuna; 4. Arreta orokorra eta selektiboa, bien arteko koordinazioa egoki erabiltzea gainerako parte-hartzaileen ekintzak interpretatzeko gaitasuna; 6. Arauak errespetatzeko eta espazioan eta denboran egituratzeko gaitasuna; 7. Lankidetzaren egoerak sustatu, talde lanean aritzeko gaitasuna; 8. Inguruneari eta jarduerari egokitzeko gaitasuna; 11. Edozein jardueraren erabilera modu osasungarrian aplikatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna; 12. Ikasleek jarduera fisikoa behar den bezala egiten ikasi eta norbera eta kolektiboaren osasuna bermatzeko gaitasuna</p>				
<i>Deskribapena</i>				<i>Taldekatzea</i>	<i>Iraupena</i>
1. SAIOA					
Taldea bakoitzari aste bat egokituko zaio praktikan jartzeko haien saioak. Haien diseinatuko dute nola eraman aurrera saioak. Horretarako irakasleak aurretik emandako argibideetatik informazioa eskuratuz, egokien ikusten duten metodoa erabiliko dute berdinaren arteko ikaskuntza gauza dadin.				Taldeek planteatu moduan	Ordu 1
2. SAIOA					
Bigarren saioan, taldeek aukeratu duten kirolaren inguruko teknikak etab. praktikatzeko jarraituko dute. Saio honek 10 minutu utziko dizkio irakasleari feedback-a emateko. Hau da, aurreko saioan eta oraingoan izandako akats edo egoki egindako gauzen azalpena. Irakasleak ez ezik, ikasleek ere haien iritzia emanen dute eta asanblada moduko bat sortuko da. Bertan ebaluazio fitxa batzuk banatuko dira zeinetan 3 motatako ebaluazioa egonen den.				Taldeek planteatu moduan	Ordu 1
<p>Oharrak: Aurretik esan moduan, irakasleak ez dio garrantzia handirik emango aurretik eginiko planifikazioaren akatsei, garrantzia gehiena ikasleek praktika izanena da. Hau da, nola emango duten saioa zein jarrera izango duten eta taldekideen arteko koordinazioa izango da garrantzikoena.</p> <p>Ebaluazioa: Horretarako, errubrika zehatz bat diseinatuko du irakasleak (ikus.V.Eranskina). Bertan hiru ebaluazio mota egonen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakaslearen ebaluazioa (ikus. VI. Eranskina I.) • Koebaluazioa (ikus. VI. Eranskina II.) • Berdinen arteko ebaluazioa (ikus. VI. Eranskina III.) <p>Berdinen arteko ebaluazioan, beste taldeek irakasle edo monitore gisa aritu den taldea ebaluatzeaz gain, irakasle aritu direnek ere haien ikaskideen jarrera, gaitasunak etab. ebaluatuko dituzte ere.</p>					

Taula 8. Saioen deskribapena. 8. Astea

GAIA: ATLETISMOA. OLINPIADAK			DBH 1.maila		25 ikasle		8. Astea	
Edukiak	1,2,3,4	Ebaluazio irizpideak	-1,2,3,4	Ikaskuntz. estandar ebaluagarriak		-1.1; 1.2; 1.3; 1.4; 2.1; 2.2; 2.3; 2.4; 3.1; 3.2; 3.3; 4.1; 4.2		
Materiala eta tresnak	Olinpiadak aurrera eraman ahal izateko moduan. (jabalinak, pisuak, hesiak, lekukoak...) Puzzle edo buruhauste metodologia							
Arloko Helburua	<p>1. Norberaren mugimenduak kontrolatzea eta norberaren aukerak hobeki ezagutzeko gaitasuna; 2. Gorputz eskema garatzeko eta banakako abileziak lortzeko gaitasuna; 3. Aurkariaren ekintzak ongi interpretatzea, ekintza egokia aukeratzea, ekintza gauzatzeko une egokia aukeratzea eta erabaki hori gauzatzeko gaitasuna; 4. Arreta orokorra eta selektiboa, bien arteko koordinazioa egoki erabiltzea gainerako parte-hartzaileen ekintzak interpretatzeko gaitasuna; 5. Estrategia kolektiboa aintzat hartuz besteak aurreikustea eta norberaren ekintzak aurreratzeko gaitasuna; 6. Arauak errespetatzeko eta espazioan eta denboran egituratzeko gaitasuna; 7. Lankidetzaz egoerak sustatu, talde lanean aritzeko gaitasuna; 8. Inguruneari eta jarduerari egokitzeko gaitasuna; 11. Edozein jardueraren erabilera modu osasungarrian aplikatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna; 12. Ikasleek jarduera fisikoa behar den bezala egiten ikasi eta norbera eta kolektiboaren osasuna bermatzeko gaitasuna.</p>							
Deskribapena					Taldekatzera		Iraupena	
1. SAIOA								
Aurretik zeuden taldeak (adituen taldeak) aldatu egingen dira eta oinarrizko taldeak sortuko dira. Hau da, talde bakoitzean kirol modalitate bakoitzeko aditu bat egonen da. Lehenengo saio honetan, jabalina jaurtiketa, luzera jauzia eta erreleboak gauzatu dira. Taldeko kide bakoitzak kirol hauen exekuzioan aritu beharko du eta puntuazio jakin bat emanen dio taldeari.					Taldeka (5eko taldeak)		Ordu 1	
2. SAIOA								
Hurrengo saio honetan, faltako liratekeen bi kirolak praktikatu dira. Batetik, Pisu jaurtiketa eta bestetik hesiak. Bi jarduera hauek txandakatuak izango dira. Hau da 3 taldek pisu jaurtiketa egiten dauden bitartean beste bi taldek hesien lasterketa egingen dute. Kirol hauetan, jabalina jaurtiketan eta luzera jauzian moduan, ikasleak norbanako moduan jokatu dute. Baina talde baten barruan egonen dira eta haien puntuazioa taldearentzat izanago da.					Taldeka (5eko taldeak)		Ordu 1	
<p>Oharrak: Erreleboen modalitatea lasterketa moduan jokatu da eta bost taldeak haien aurka arituko dira. Aldiz, gainontzeko kirol modalitateetan ikasle bakoitza norbanako moduan arituko da eta puntuazioa banakakoa lortuko duen arren, taldeari puntuazio jakin bat emango dio. Hau da, luzera jauzia jabalina jaurtiketa eta pisu jaurtiketan metroak dira neurtu beharrekoak. Metro gehien lortzen dituenak puntuazio altuena emango dio bere taldeari eta aldiz metro guztien lortzen dituenak puntuazio eskasena emanen dio taldeari. Hesiei dagokionean, hesi kopuru bat ahalik eta denbora motzenez pasatzen datza. Kasu honetan azkarren egiten duen ikasleak, puntuazio altuena emanen dio taldeari eta motelen aritzen den pertsonak aldiz puntuazio txikiena emanen dio.</p> <p>Honekin ikusi daiteke, azkena gelditu arren zure taldeari puntuazio bat ematen diozula eta gutxienez saiatzen den pertsonak badu bere taldeari aportatzea.</p> <p>Guzti hau puntuatzeko, dokumentu bat egonen da zeinetan ikasle bakoitzaren lortutako postuak zein puntu eman dituen azalduko diren</p>								

6.3.5. Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionean, ez da soilik amaierako produktua ebaluatu eta esan daiteke ez dela ere faserik esanguratsuen. Gehien bat taldeka ebaluatuko da, metodologia kooperatzaile batean oinarritutako proposamena delako. Baina ukaezina da norbanakoaren saiakera zein garrantzitsua den eta hori DBHko 1.mailako ikasleentzat, bakoitzaren esfortzua aintzat hartzea oso funtsezkoa da.

Horregatik ere Olinpiadek bere balioa izango dute ere eta puntuatzeko modurik ere izango da. Hala nola, 25 ikasleen artean emaitza hobereana lortzen duen ikasleak 25 puntu lortuko ditu (beretzat izango dira puntuak baina taldeari ere gehituko dizkio) eta aldiz azkena egiten duenak puntu bakarra. Hesietan, errail kopuruengatik, 5 pertsonen artean lehiatuko dira eta ondoren denborak neurtuko du emaitzarik hobereana. Aldiz, erreleboetan taldekako puntuazioa lortuko da eta 4 partaide izan ordez, 5 izango dira beraz partaide bakoitzak 80m egin beharko ditu korrikan. Puntuak honela banatuko dira:

1.taldeak 25p; 2.taldeak 20p; 3.taldeak 15p, 4.taldeak 10p eta azkenekoak 5p.

Argibide gehiagorako, **ikus. VII.Eranskina.**

Taula 9. Ebaluazio orokorraren eskema

1.Aurkezpenaren ebaluazioa (20%)	Taldekakoa (50%)	Banakakoa (50%)
2. Saioen egikaritzaren ebaluazioa (40%) 2.1. Irakaslearen ebaluazioa (%60) 2.2. Talde Koebaluazioa (%20) 2.3. Berdinen arteko ebaluazioa (%20) 2.3.1. Ikasleen egikaritzaren banakako ebaluazioa. (%50) 2.3.1. Taldeen arteko ebaluazioa (%50)	Taldekakoa (%90) Banakakoa (%10)	
3. Olinpiadetan lortutako emaitza (20%)	Taldekakoa (100%)	
4. Jarrera ebaluazioa (20%)	Banakakoa (100%)	

Talde lanak eta lan kooperatzaileak bere garrantzia du baina banakako eta norbanako lanak ere badu garrantzia. Horregatik, ebaluazio indibiduala eginen da lan egin duten eta ez dutenen arteko diferentzia hori markatzeko.

6.EMAITZEN ANALISIA

Atal honetan, esperotako emaitzen inguruko informazioa gogoeta prozesu baten bidez azalduko da. Izan ere diseinatutako proposamena praktikara eraman ez denez, ez dago datu edo emaitza zehatzik.

Programazio didaktiko baten eta bertako unitate didaktiko jakin batean oinarritutako praktika berritzailean datza. Ondorioz, proposamenaren ebaluazio eta emaitza posibleen inguruko azterketa egingen da. Alde batetik espero daitezkeen emaitzen analisia eta bestetik proposamenak izan ditzaken arrakasta eta hutsegiteak azalduko dira.

6.1. ESPEROTAKO EMAITZAK

Planteamenduan espero daitezkeen emaitzak oro har positiboak dira proposatzen dituen kontzeptu, balore zein ikasleek eskura dezaketen ezaguerei begiraturaz. Nire jakintza pertsonaletik, bai ikasle moduan zein irakasle moduan ikusi eta aztertu izan dut nola inplikatzeko den ikasleria haiena sentitzen duten proiektu bat aurrera eramaten dutenean. Hau da, ikasleei helburu jakin bat eta egingarri bat jartzen zaienean, motibazio handiago batekin aritzen dira. Finean saioak haiengandik atera behar baitira eta aurrera eraman.

Ikaskuntza integral bat ematen denean, ikaskuntza esanguratsua azalduko da eta horrekin batera ikasleen ikusgaitasuna handiagoa izaten da, irakaslea gidari bilakatuz. Proposamen honetan ikasleak dira protagonistak eta beraiek dira kirola hautatzen dutenak ondoren saioak egituratu eta aurrera eramateko.

Horretarako, irakasleak egin beharreko alde aurretiko lana ez da xamurra, oso planifikatuta egon behar da dena. Hala nola, saioen diseinu bat egon behar da, ebaluazio irizpideak zehaztuak egon behar dira tresna egokiak sortzeko ebaluazioari begira eta metodologia ezberdinen praktika bat planteatu beharra dago. Ondorioz, ikasleak ikas metodologia horren subjektuak dira eta aldi berean, metodologia horien eramaileak ere.

Beraz, arestian aipatutako gauza guztiak kontuan hartzen badira honako emaitzak lor daitezke:

- ✓ Ikaslearen parte hartze aktiboaren sustapena.

- ✓ Gorputz Hezkuntzak eskaintzen dituen gaitasunen lorpena. Erresistentzia, indarra, abiadura edota koordinazioa.
- ✓ Talde lana, elkarlanean eta kooperazioan oinarrituz.
- ✓ Autonomia pertsonala bultzatzen duen gaitasunen lorpena.
- ✓ Zazpi Konpetentzia giltzen lorpena.
- ✓ Izaera berritzaile eta ekintzailearen garapena.

6.2. PROPOSAMENAREN ARRAKASTA ZEIN HUTSEGITEA

Lan honetan planteatutako proposamena ez da praktikara eraman, beraz ezin modu zehatz batean emaitzen azterketa bat egin. Hala ere, hipotetikoki bada ere, proposamen guztiek izan dezaketen moduan, proposamenaren arrakastak eta hutsegiteez hitz egingo da hurrengo lerroetan.

6.2.1. Indarguneak eta aukerak

Egun hezkuntzak bizi duen paradigma aldaketa dela eta, lan honen garapenean ikusi izan den moduan, IKT-ak garrantzia hartu dute azken urte hauetan. Horrenbestez, LOMCEk ezarritako konpetentzia giltzak horren argibide dira. Honekin batera, aurretik aipatutako XXI. mendeko metodologiak garrantzitsuak izan dira lanaren garapenean. Hala nola, flipped classroom, Gamifikazioa, Rol Jokoa edota hain berria ez, baina bai berritzailea den ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako metodologiak proposamenaren oinarri izan dira. Metodologia zein teknika hauen agerpena ikaslearengan bilatzen den **izaera berritzaile eta ekintzailearen garapenarekin** edota **parte hartze aktiboarekin** bat egin dezakete.

Bestetik, eta begirada ikaslearengan zentratuz, proposamen hau aberatsa da. Proposamen aktibo bat da zeinetan balore hezigarriak (talde lana, ikaskideekiko enpatia, errespetua eta diziplina) transmititzen dituen. Bultzatzen den kirola ez da inguruan dagoen “kirol hegemonikoa” eta lagundu egiten du atletismoa eta bere modalitateak bezalako praktikak ezagutzea. Gainera exijitzen den teknika ez da zaila eta moldagarria da adin bakoitzak dituen ezaugarrietarako.

Amaitzeko, aipatu ere proposamenean erabiltzen diren materialak eskuragarriak direla edozein institutueterako. Izan ere, hesiak, pisuak, jabalinak etab. bezalako materialak, birziklatu daitezke.

6.2.2. Mehatxuak eta ahulguneak

Kontuan hartu behar da proposamena aurrera eramaten ez den aldetik eta frogatu ezin den aldetik horrek ahulgune bat sortzen duela. Hala ere, proposamena kasu hipotetiko batean, edozein irakaslek erabili ahal izango balu moduan ebaluatuko da.

Programazio didaktiko honek izan dezaken ahulgune handiena, aniztasun funtzionala duen ikasle bat berea ere kontutan hartzen ez dela da. Gerta daiteke, ikasle gor edota herrenekin topo egitea eta lanean ez da aintzat hartzen inongo momentutan beraz ez da lan inklusibo bat. Gainera, ez bakarrik aniztasun funtzionala duten ikasleak, egun estatuan dagoen gizentasun tasak aintzat hartuz, holako ikasleekin ere topo egin daiteke. Honenbestez, moldaketak egin beharko lirateke kasu errealak kontutan izateko.

Bestetik, saioen egikaritzea aurrera doan heinean, bakoitzak duen rola oso ondo identifikatu behar da eta irakasleak tresnak behar ditu horretarako. Gatazkak sortu daitezke Rol Jokoan, izan ere ikasle batzuk irakasle izango dira eta autoritate hori mantendu egin behar dute gainontzeko kideek hori guztia ulertuz. Beraz, adin hauetan liderrak oso markatuak dauden momentuan, zaila izan daiteke liderrari “aginduak” ematea. Ondorioz, gerta daiteke gatazka hauen ondorioz saioen planifikazioa desitxuratzea eta behar baino denbora gehiago erabiltzea saioan. Horretarako, “saio extrak” beharko lirateke UD-aren planifikazioan eta ez dira ageri.

Amaitzeko, ahulgune zein mehatxuetako bat UD-ak behar dituen instalazioak ez edukitzea izan daiteke. Oso zaila da institutu batek patiorik ez izatea edota GHko ikasgaia aurrera eramateko espazio nahikorik ez izatea baina gerta daiteke. Batez ere hirietako institutuetan espazioa konpartitu beharra izatea. Ondorioz, zaila egin daiteke proposamenaren egikaritzea.

Hala ere, mehatxuak mehatxu, proposamena institutu eta instalakuntza jakin batzuei bideratutakoa izan da eta horren arabera UD bat proposatu da.

7. HAUSNARKETA

Hasiera batetik, proposamen hau nire zalantzetatik eratorritako gai edo egoerari aurre egiteko pentsatuta egon da. Etorkizun hurbil batean irakaslea izango naiz eta Programazio Didaktikoen zein UD-en inguruan jakintza minimo bat eskuratu dudala ikusten dut. Ez hori bakarrik, gai izan naiz, egun dagoen paradigma aldaketa kontuan hartzeko eta pil-pilean dauden metodologia zein teknika berritzaileak proposamenean aplikatzeko.

Orain, teorian planteatutakoa praktikan jartzea besterik ez da falta eta ziurrenik saioak aurrera doazen heinean nire pertzepzioa aldatu egingen da. Egiten ikasten baita eta hori izan da proposamenean egon den funtsetako bat. Ikasleek egiten gehiago ikasten dutelako ere.

Amaitzeko aipatu beharra daukat proposamen honetan lan kooperatiboari eman diodan garrantzia baliagarria dela gaur egungo gizartean. Ikasleek bizi duten lehiakortasuna askotan ez da onuragarria eta mundu justuago bat eraikitze aldera, talde lanean eta kooperazioan aritzeak dakartzan alde positiboak markatu nahi izan ditut proposamen honekin.

8. ERREFERENTZIAK

- Álvarez, J. M. (2010). Características del desarrollo psicológico de los adolescentes. *Revista Innovación y experiencia educativas*, (28). Errekuperatua <http://biblioteca.iplacex.cl/RCA/Caracter%C3%ADsticas%20del%20desarrollo%20psicol%C3%B3gico%20de%20los%20adolescentes.pdf>
- Blasco, A.C, Lorenzo, J., y Sarsa, J. (2016). La clase invertida y el uso de vídeos de software educativo en la formación inicial del profesorado. Estudio cualitativo. *Revista d'innovació educativa*, (17), 12-20.
- Cotecha, L.F.(2007) Los conceptos de educación física: una perspectiva histórica. *Aproximaciones epistemológicas y pedagógicas a la Educación Física. Un campo en construcción*,(1), 131.
- Delgado Noguera, M.A (1991). Los estilos de enseñanza en E.F. Propuesta para una reforma de la enseñanza. Granada: ICE.
- Fernández, J.M. (2009). La importancia de la educación física en la escuela. *Revista digital -Buenos Aires-* (13), 130.
- García-Varcalcel, A. y Balistota, V. (2017). Aprendizaje Basado en Proyectos (ABP): evaluación desde la perspectiva de alumnos de Educación Primaria. *Revista de Investigación Educativa*, 35(1), 113-131.
- Jonhson, D. W., Jonhson R.T. y Holubec, E. J. (1999). El aprendizaje cooperativo en el aula. Buenos Aires: Paidós. Berreskuratua: https://s3.amazonaws.com/academia.edu.documents/33597188/El_aprendizaje_cooperativo_en_el_aula.pdf?AWSAccessKeyId=AKIAIWOWYYGZ2Y53UL3A&Expires=1522240564&Signature=Nv%2FrNT6jHH6TybWAY%2F9vHwTclws%3D&response-content-disposition=inline%3B%20filename%3DEl_aprendizaje_cooperativo_en_el_aula.pdf
- Lopez de Sosoaga, A. (2014-2015). Gorputz hezkuntza eta bere didaktika apunteak. UPV-EHU.

- Monguillot, H., González, C., G., Zurita, C., Almirall, L. y Guitert, M. (2015). Play the Game: gamificación y hábitos saludables en educación física. /Play the Game: gamification and healthy habits in physical education. *Apunts. Educació física i esports*, (119), 71.
- Mosston, M. y Ashworth, S. (1993) *La enseñanza de la educación física. La reforma de los estilos de enseñanza*. (Núria Sabartés, Jordi Barres y Fernando Ruiz Barres, trad.). Barcelona: Hispano Europea, S.A. (trad. Orig.1986).
- Mosston, M. (1978). *Enseñanza de la Educación Física. Del comando al Descubrimiento*. Madrid: Gymnos.
- Navarrete, R. (2010). La educación física y su metodología. Las formas de enseñar educación física. *Portal Deportivo. Deporte, ciencia y actividad física*, (16), 27.
- Navarro, L. P. (2006). Aprendizaje activo en el aula universitaria: el caso del aprendizaje basado en problemas. *Miscelánea Comillas. Revista de Ciencias Humanas y Sociales*, 64(124), 173-196.
- Pérez, R. (1993). Evolución histórica de la Educación Física. *Apunts: Educación física y deportes*. (33) 24-38.
- Piaget, J. (1950). Introducción a la Epistemología Genética. T. 1: El pensamiento matemático. T 2: El pensamiento físico. T 3: El pensamiento biológico, el pensamiento psicológico y el pensamiento sociológico. Buenos Aires, Paidós.
- Pujolás, P. (2002). *El aprendizaje cooperativo. Algunas propuestas para organizar de forma cooperativa el aprendizaje en el aula*. Documento de trabajo. Universidad de Vic: Laboratorio de psicopedagogía.
- Pujolás, P (2003). El aprendizaje cooperativo. Algunas ideas prácticas. Barcelona. Universidad de Vic.
- Rodríguez, R. (2016). Filosofía política en acción. El juego de rol como estrategia de enseñanza. *REXE. Revista de Estudios y Experiencias en Educación*, 15 (29).

Slavin, R. (1999). *Aprendizaje cooperativo: teoría, investigación y práctica*. Buenos Aires: Aique, 1999 Berreskuratua:

<http://www.ecoasturias.com/images/PDF/slavin-el-aprendizaje-cooperativo.pdf>

Tinning, R. (1992). *Educación Física: la escuela y sus profesores*. (Eloy Izquierdo y Rafael García Doménech, trad.) Valencia: Universitat, Servei de Publicacions, D.L.

Toledo, L. A., Garber, M. F., eta Madeira, A. B. (2017). Consideraciones acerca del Design Thinking y Procesos. *Revista Gestão & Tecnologia*, 17(3), 312-332. Berreskuratua: <http://revistagt.fpl.edu.br/get/article/view/1198>

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, *Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena*. (NAO, Uztailaren 2an)

46/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa, *Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena*.

ORDEN ECD/65/2015, de 21 de enero, *por la que se describen las relaciones entre las competencias, los contenidos y los criterios de evaluación de la educación primaria, la educación secundaria obligatoria y el bachillerato*.

Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, *para la Mejora de Calidad Educativa* (BOE, de 10 de diciembre).

9. ERANSKINAK

ERANSKINA I: 24/2015 FORU DEKRETUA

Taula 2. DBH 1. maila. Gorputz Hezkuntza. Curriculumua

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK
1. MULTZOA.–JARDUERA MOTORRAK		
<p>1.Bakarkako jarduera motorrak ingurune iraunkorretan</p> <ul style="list-style-type: none"> Bakarkako kirola gizarte eta kultur gertakari gisa. Kirol ekintzekin zerikusia duten abilezia motorrak erabiltzea. Bakarkako kirol bateko oinarritzko keinu teknikoak egitea eta arauzko elementuak identifikatzea. <p>2.Jarduera motorrak aurkakotasuneko egoeratan</p> <ul style="list-style-type: none"> Oinarritzko keinu teknikoak eta desplazamenduak. Teknika, helburuak eta inplikaturik dauden gaitasun motorrak. Printzipio estrategikoak eta oinarritzko jarrera. Joko arauak. <p>3.Jarduera motorrak lankidetzaren egoeratan, aurkakotasuna izanik edo izan gabe.</p> <ul style="list-style-type: none"> Jokoaren faseak taldeko kirolean: kontzeptua eta helburuak. Taldeko kirolen alderdi komunak nagusi diren jarduerak eta jolasak egitea. Besteen eta norberaren gauzatze maila onartzea eta hobetzeko prest egotea. Egiten diren jarduerak, jolas eta kirolean aktiboki parte hartzea eta arauak errespetatu eta onartzea. Jarduera fisikoa eta kirola gozamen eta aberastasun 	<p>1. Norberaren egoera motorrei irtenbidea ematea, proposatutako kirol jarduera fisikoen oinarri teknikoak aplikatuz.</p> <p>2. Hainbat egoera motorri irtenbidea ematea (aurkakotasunekoak, lankidetzakoak edo lankidetzaren aurkakotasunekoak) estimulu nagusien arabera estrategia egokiak erabiliz.</p> <p>3. Kirol jarduerak fisikoek aisialdi aktiboa edukitzeko eta ingurunea egoki erabiltzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.</p>	<p>1.1. Proposatutako jardueren eredu teknikoaren oinarritzko alderdiak gauzatzen ditu.</p> <p>1.2. Bere gauzatze maila ebaluatzen du, proposaturiko eredu teknikoarekin alderatuz.</p> <p>1.3. Eredu teknikoan inplikaturiko mugimenduak egiteko modua deskribatzen du.</p> <p>1.4. Hautaturiko jardueraren oinarritzko teknikak azaldu eta aplikatzen ditu, eta ingurunearekin errespetuzko jarrera eta ohiturak erakusten ditu.</p> <p>2.1. Oinarri tekniko eta taktikoak egokitzen ditu proposatzen zaizkion aurkakotasuneko eta taldekako kirol jarduerak fisikoetan abantaila lortzeko.</p> <p>2.2. Hautatu duen taldekako kirolean, eraso eta defentsa antolatzeak aukerak azaldu eta bere kasa aplikatzen ditu.</p> <p>2.3. Lankidetzako, aurkakotasuneko edo lankidetzaren aurkakotasuneko egoeretan erabakiak hartu behar direnean kontuan hartu beharreko estimuluak diskriminatzen ditu, abantaila lortzeko edo ekintzaren helburua betetzeko.</p> <p>2.4. Ebatzitako egoerei buruzko gogoeta egiten du, hartutako konponbideen egokitasuna eta antzeko egoeretan duten aplikagarritasuna baloratuz.</p> <p>3.1. Inguruneak kirol jarduerak fisikoak egiteko eskaintzen dizkion aukerak ezagutzen ditu.</p> <p>3.2. Ingurunea errespetatzen eta baloratzen du, kirol jarduerak fisikoak egiteko denontzako tokia den aldetik.</p> <p>3.3. Gaur egungo testuinguru sozialean, gorputzaren tratamenduarekin, aisialdiko jarduerekin, jarduerak fisikoarekin eta kirolarekin lotutako bizimodua eta jarrerak analizatzen ditu ikuspuntu kritiko batetik.</p>

pertsonalaren iturri gisa bizitzea.

4. Ingurunera egokitzeko egoeretako ekintza motorrak.

- Kirola eta jarduera fisikoa ingurune ez-iraunkorretan.
- Hurbileko natur inguruneak kirola eta jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dituen aukerak.
- Jarduerak egiteko oinarritzko ekipamendua, jardueraren iraupenaren eta baldintzen arabera.
- Meteorologia, jarduera bat prestatzeko edo egiteko kontuan hartu beharreko faktore gisa.
- Hiri eta natur ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasunekoak onartu eta betetzea.

5. Ekintza motorrak arte edo adierazpen egoeretan.

- Gorputzaren adierazgarritasuna: jarrera, keinua eta mugimendua. Gorputzaren kontzientzia adierazpen jardueretan erabiltzea.
- Adierazpen jarduerak egiteko orduan, erritmo desberdinak konbinatzea eta objektu desberdinak erabiltzea, bai bakarka bai taldean.
- Adierazpen jardueretan aktiboki parte hartzea, adierazpenaren agerbide edo modalitate desberdinak erabiltzea eta desinhibizioaren aldeko jarrera izatea.

4. Mezuak bakarka edo taldeka adieraztea eta komunikatzea gorputz adierazpenaren teknikak erabiliz.

4.1. Keinua eta mimika erabiliz, mezu bat prestatu eta jakinarazten du talde baten barrenean.

4.2. Adierazpen dantzak taldeka egitean, aktiboki parte hartzen eta laguntzen du.

2. MULTZOA.–OSASUNA		
<ul style="list-style-type: none"> • Beroketa, eta horren esanahia jarduera fisikoak egitean. • Beroketarako jolas eta ariketa egokiak egitea. • Beroketa baloratzea, jarduera fisikoaren hasierako ohitura osasungarri gisa. • Jarduera fisikoa amaitzean intentsitate txikiko ariketak egitea. • Egoera fisikoa. Osasunarekin lotura duten kalitateak. • Egoera fisikoa hobetzea gaitasun fisikoak garatuz, batez ere osasunarekin zerikusia dutenak. • Maila osasungarriak egoera fisikoaren faktoreetan. • Jarrera-higienea jarduera fisikoan eta eguneroko jardueretan. • Hidratazioa eta elikadura jarduera fisikoa egin bitartean. • Euskarrizko muskuluak indartzea, indarra garatzeko sistemak eginez. • Jarduera fisikoak egitean eta eguneroko bizitzako egoeretan gorputz jarrera egokiak lantzea. 	<p>1. Gaitasun fisikoak norberaren ahalmeneren arabera eta osasunaren mugen barrenean garatzea.</p>	<p>1.1. Oinarrizko gaitasun fisikoak hobetzen aktiboki parte hartzen du, ikuspegi osasuntsu batetik, haiek garatzeko oinarrizko metodoak erabiliz.</p> <p>1.2. Ikasleak unean-unean daukan garapen motorren eta bere gaitasunen araberako egoera fisikoa lortzen du.</p> <p>1.3. Jarduera fisikoak egitean jarrera-higienearen oinarriak aplikatzen ditu, lesioei aurrea hartzeko neurri gisa.</p>

Iturria: 24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa

ERANSKINA II: TALDEKATZEEN ARTXIBOA

GORPUTZ HEZKUNTZA: 3. EBALUAKETA, 9. UD

TALDEKATZEAK

Azalpenean ikusi izan duzuen moduan, datorren asteko saiora taldeak osatuta ekarri behar dituzue. Hausaz “bost kapitain” aukeratu ditut taldeen izendapena egiteko. Ondorioz, zure izena ikusi ezean, ez duzu zertan berriz ipini behar izenik. Aldiz, ez baduzu zure izena ikusten taldeetako batean apuntatu beharko zara.

AD!!! Derrigorrezkoa da taldeak mistoak izatea, beraz honela geratuko lirateke:

- 1. Taldea: Oihan** + mutil+neska+neska+neska (2 M eta 3 N)
- 2. Taldea: Aitor** + mutil+neska+neska+neska (2 M eta 3 N)
- 3. Taldea: Marina** + mutil+ mutil+neska+neska (2 M eta 3 N)
- 4. Taldea: Alaitz** + mutil +mutil+neska + neska (2 M eta 3 N)
- 5. Taldea: Unai**+ mutil+ mutil +neska+ neska (3 M eta 2 N)

Bete ezazu zure izena goiko argibideei kasu eginez, nahi duzun taldean.

1. Taldea:	2. Taldea	3. Taldea	4. Taldea	5. Taldea
- Oihan	- Aitor	- Marina	- Alaitz	-Unai
-	-	-	-	-
-	-	-	-	-
-	-	-	-	-
-	-	-	-	-

Taldeak bete ondoren, has zaitezketen zuen artean hitz egiten atletismoko zein modalitate hartuko zenuketen adosteko.

Datorren astean ikusiko dugu elkar! Ondo izan.

ANE.

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

ERANSKINA III: IDATZIZKO LANA EGITEKO ESKEMA

Lan batek hainbat atal bete behar ditu modu formal batean aurkeztu ahal izateko. Bertan emango dizkizuedan argibideek lagundu egingo dizuete dokumentua behar den moduan egituratzeko, baina zuen eskuetan dago atal bakoitzaren garapena.

1. Portada: izenburua, irudi adierazgarriren bat, egileen izen abizenak, arloa, ikasturtea eta ikastetxearen izena.

2. Aurkibidea: dokumentuaren puntu bakoitza azaltzen duena da. Bertan izenburu garrantzitsuenak agertu behar dira, baita garatutako puntuak ere.

3. Sarrera: Zertaz hitz egingo da?

4. Atal nagusia: Kirol hori azaltzeko tartea

4.1. Atal honetan kirola azaltzeko azpi puntuak egin beharko dituzue (nondik datorren, zein herrialdetan aritzen diren gehien, nola jokutzen da, zein teknika erabiltzen den... etab.).

5. Ondorioak: atal honekin amaitutzat ematen da lana eta beraz ondorio batzuk atera beharko dituzue kirol honen inguruan.

6. Bibliografia: ez dizuet eskatuko bibliografia formal bat egitea baina bai zerrendatzea zein tokitatik hartu duzuen informazioa.

Oharra:

Lanaren hizkiak: Arial 12

Lerro artea: 1'5

Lanak ez ditu 5 orrialde baino gehiago izan behar beraz ez da lan mardula eta nahiko arin egin dezakezue. Baina lan xumea izateak ez du esan nahi saiatu egin behar ez zaretenik, kontutan hartuko dut lan hau, beraz gogotsu ekin eta aurrera!

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

ERANSKINA IV: IDATZIKO LANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

KOMUNIKAZIO IDATZIAREN TALDEKAKO ERRUBRIKA			
ESKALA	3	2	1
Egituraketa	Eskatutako puntu guztiak agertzeaz gain, garatutakoak ere agertzen dira	Eskatutako puntu guztiak agertzen dira	Ez dira eskatutako puntu guztiak agertzen.
Ortografia	Ez dago akatsik	Akats gutxi aurki daitezke, 3-6 artean.	Akats asko aurkitzen dira.7tik gorakoak.
Edukia	Oso datu esanguratsuak daude.	Kirola azaltzeko nahiko datu daude.	Hainbat datu esanguratsu falta dira.
Azalpena	Oso argia, esaldi motzak eta argiak.	Orokorrean argia da. Badira esaldi korapilatsuak.	Ez da gauza handirik ulertzen.
Irudiak	Irudi adierazgarriak agertzen dira, testuari laguntzen diotenak	Orokorrean irudi adierazgarriak.	Irudi eskasak eta agertzen direnak ez diote testuari erreferentzia egiten

Iturria: *Elaborazio propioa*

ERANSKINA V: AURKEZPENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

KOMUNIKAZIO GAITASUNEN BANAKAKO ERRUBRIKA				
ESKALA	4	3	2	1
Ahots tonua	Beti egokitzen da egoerak eskatzen duen tonura.	Normalean, aldatuz joaten da egoerak esaktzen duenaren arabera.	Batzuetan gidatu eta orientatu behar izan zaio	Ez du tonua erregulatzen
Keinu eta adierazpena	Beti erabiltzen ditu keinuak eta adierazgarri azaltzen da bere azalpena hobetzeko.	Orokorrean erabiltzen ditu keinuak batzuetan ahazten baditu ere.	Batzuetan bai baina besteetan blokeatu egiten da eta keinu errepikakorrak egiten ditu.	Ez ditu inoiz keinuak erabiltzen. Kostatzen zaio eta blokeatu egiten da.
Konfiantza	Beti dauka jarrera positiboa eta azalpenak gogotsu ematen ditu.	Orokorrean azalpena gogoekin hartzen du.	Batzuetan kosta izan zaio gogotsu ekitea azalplenari.	Ez du erronka bere egiten eta gogorik gabe azaltzen da.
Edukia	Bere azalpena edukiari dagokiona da. Ikusten da ulertzen duela.	Orokorrean edukia zein den ikusten du.	Batzuetan galdu egiten du iparra eta ez da konturatzen zertaz diharduen.	Ez du edukiaz hitz egin.
Sormena	Originala izan da, saiatu da bitxikeriaren bat kontatzen.	Orokorrean originala izaten saiaturen da eta ez du gainontzekoen gauza berbera erreproduzitzen.	Gehienetan aurrekoek esandakoa erreproduzitu du.	Zuzenean, paperean zegoena irakurri du.

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

ERANSKINA VI: SAIOAREN EGIKARITZA EBALUATZEKO TXOSTENAK

I. Irakasleak eginiko ebaluazioa Talde ekintzaileari

Taldearen saioen egikaritza ebaluazioa				
ESKALA	4	3	2	1
Egituraketa	Saioan zehar atal guztiak ondo definituak geratu dira. Beti azalpen baten laguntzaz.	Orokorrean saioan zehar atal guztiak definituak geratu dira. Ez dute azalpen gehigarri eman.	Batzuetan ez dira saioaren atalak ondo identifikatuak geratu.	Ez dituzte ondo islatu saioaren banaketa eta atalak.
Jarduerak	Jarduera bakoitza oso ondo kokatu da saioaren atal bakoitzari. Espezifikotasun puntu bat lortu dute.	Orokorrean jarduera bakoitza nahiko ondo txertatu dute atal bakoitzean.	Batzuetan ez da oso ondo ulertu jarduera bakoitzaren funtzioa.	Saioa aurrera joan ahala ez da ulertu jarduera bakoitzak izandako funtzioa.
Helburuak	Hautatutako kirolaren arabera ezarritako helburuak oso egokiak izan dira kirolaren teknika eta arauak ikasteko	Orokorrean nahiko ondo ezarri dituzte helburuak kirolaren teknika zein arauak ikasteko.	Batzuetan helburuek ez dute bat egin jarduerak planteatzen zutenarekin.	Nahasmen handia egon da planteatutako jarduera bakoitzari ezarritako helburuekin.
Talde kohesioa	Taldeko partaideak oso era koordinatu eta ordenatuan eraman dute aurrera saioa.	Orokorrean saioa eramateko modua nahiko koordinatua izan da.	Batzuetan nahasmena egon da partaideen artean planteatutakoa aurrera eramateko.	Ez da kohesiorik egon eta koordinazio falta handia egon da.
Planifikazioa	Planteatutakoaren arabera egituraketa eraman dute aurrera. Denboran oso ondo aritu dira eta jarduera bakoitzari planifikatutako denbora eskaini zaio.	Orokorrean aurretik planifikatutakoaren arabera saioa egin dute. Batzuetan jarduera batzuk pentsa baino gehiago iraun dute baina egokitzen jakin dute.	Ez da modu zehatz batean planifikatutakoa aurrera eraman. Baina saioa modu trakets batean bada ere aurrera eraman dute.	Ez dira kapazak izan planifikatutakoa aurrera eramateko.

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

II. Talde koebaluazioa. Talde ekintzaileak bere jarduna ebaluatzen du.

Taldearen saioen egikaritza ebaluazioa				
ESKALA	4	3	2	1
Egituraketa	Saioan zehar atal guztiak ondo definituak geratu dira. Beti azalpen baten laguntzaz.	Orokorrean saioan zehar atal guztiak definituak geratu dira. Ez dute azalpen gehigarri eman.	Batzuetan ez dira saioaren atalak ondo identifikatuak geratu.	Ez dituzte ondo islatu saioaren banaketa eta atalak.
Jarduerak	Jarduera bakoitza oso ondo kokatu da saioaren atal bakoitzari. Espezifikotasun puntu bat lortu dute.	Orokorrean jarduera bakoitza nahiko ondo txertatu dute atal bakoitzean.	Batzuetan ez da oso ondo ulertu jarduera bakoitzaren funtzioa.	Saioa aurrera joan ahala ez da ulertu jarduera bakoitzak izandako funtzioa.
Helburuak	Hautatutako kirolaren arabera ezarritako helburuak oso egokiak izan dira kirolaren teknika eta arauak ikasteko	Orokorrean nahiko ondo ezarri dituzte helburuak kirolaren teknika zein arauak ikasteko.	Batzuetan helburuek ez dute bat egin jarduerak planteatzen zutenarekin.	Nahasmen handia egon da planteatutako jarduera bakoitzari ezarritako helburuekin.
Talde kohesioa	Taldeko partaideak oso era koordinatu eta ordenatuan eraman dute aurrera saioa.	Orokorrean saioa eramateko modua nahiko koordinatua izan da.	Batzuetan nahasmena egon da partaideen artean planteatutakoa aurrera eramateko.	Ez da kohesiorik egon eta koordinazio falta handia egon da.
Planifikazioa	Planteatutakoaren arabera egituraketa eraman dute aurrera. Denboran oso ondo aritu dira eta jarduera bakoitzari planifikatutako denbora eskaini zaio.	Orokorrean aurretik planifikatutakoaren arabera saioa egin dute. Batzuetan jarduera batzuk pentsa baino gehiago iraun dute baina egokitzen jakin dute.	Ez da modu zehatz batean planifikatutakoa aurrera eraman. Baina saioa modu trakets batean bada ere aurrera eraman dute.	Ez dira kapazak izan planifikatutakoa aurrera eramateko.

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

Errubrika hau ikasleek zein talde egikaritzak erabiliko dute. Ikasleek, taldearen ebaluazioa egiteko eta taldeak berak, bere saioaren egikaritzaren auto-ebaluazioa egiteko..

III. **Berdinen arteko ebaluazioa:** Talde gidariak edo saioak gidatu dituzten taldeen ebaluazioa ikaskide bakoitzari.

<i>Ikasleen egikaritzaren banakako ebaluazioa</i>				
ESKALA	4	3	2	1
Entzuten du	Beti entzuten du, besten esfortzua partekatu eta babesten du.	Orokorrean entzuten du, besteen esfortzua partekatu eta babesten du. Ez ditu "arazoak sortzen taldean"	Batzuetan entzuten du, besteen esfortzua partekatu eta babesten du.	Ez du entzuten ezta besteen esfortzua partekatu ez babestu ere.
Taldeari ekarpena	Taldean parte hartzen duenean beti ideia baliagarriak proposatzen ditu	Taldean parte hartzen duenean orokorrean ideia baliagarriak proposatzen ditu.	Taldean parte hartzen duenean, batzuetan ideia baliagarriak proposatzen ditu.	Taldean parte hartzean sekula ez ditu ideia baliagarriak proposatzen.
Jarrera	Beti dauka jarrera positiboa. Inoiz ez da besteen ekintzaz burlaka aritzen. Taldearen batasunean laguntzen du.	Orokorrean jarrera positiboa izaten du eta oso arraroa izaten da besten ekintzaz burlaka aritzea.	Batzuetan taldekideen trebetasunez burla egiten du. Lanarekiko jarrera positiboa du.	Beti burlaka aritzen da besteen ekintzaz. Oso gutxitan izan du talde lanarekiko jarrera positiboa.
Rola	Beti saiatzen da bere rolaekin betetzen eta bere gain hartzen du ardura.	Orokorrean rola onartzen du baina batzuetan gogorarazi behar zaio.	Batzuetan gogorarazi behar zaio zeintzuk diren bere funtzioak eta rola.	Ez du identifikatzen zein den bere rola eta ez ditu banakako erantzukizunak bere gain hartzen.
Dinamika kooperatiboak	Beti ulertzen du dinamika eta modu positibo batean parte hartzen du honetan.	Orokorrean parte hartzen du beste batek gidatuta bada ere.	Batzuetan bakarka esplikatu behar zaio parte hartzeko zer egin behar duen.	Ez du identifikatzen zein de bere papera. Beraz, ez du parte hartzen.

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

ERANSKINA VII: OLINPIADEN SAILKAPENA

IKASLEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
Jabalina jaurtiketa																									
Pisu jauriketa																									
Hesiak																									
Erreleboak																									
Luzera jauzia																									
Bnakako puntuak																									
Taldeko puntuak																									

Iturria: *Elaborazio propioa (2018)*

